

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Uztailak 14, 30. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Inudi hau arrasatearrentzat ezaguna da

Gas naturalaren inguruko gorabeherak

Arrasaten gas naturala, iazko urtearen amaieran hasi ziren banatzen. Jadanik gure herriko zenbait auzok gasaz disfrutatzeko aukera du; baina beste zenbaitetan arazoak nagusitu dira, gasaren banaketaz arduratzen den enpresaren eta auzotarren artean. Zenbait arrasatearrek, gasa D3 tarifaz-tarifa merkeenaz- kontratatzeke aukera duela uste du, horretarako behar den gas-kontsumoa gas-kontsumatzaile batzuk bildurik lortuz. Naturgas-ek, gasaren banaketaren ardura duen enpresak, berriz, kontsumoak batzea ez dela legala dio eta ondorioz, ez du D3 tarifa aplikatu nahi. (16. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Arte hamabostaldia Irailean

Zenbait arlotako 18 artista arrasatearrek aurkeztutako proiektua onartu da Udaletxean. Egitasmoa, eskultura-simposiumari ordezkatzeko Irailean herrian arte hamabostaldia antolatzea da. (11. or.)

Kultur ekitaldiak

Hilabete honetan Monterroneko Parkea kultur-gunea bihurtu zaigu. Datorren egunetarako zinea, txotxongilo, jazz eta dantza-emanaldia iragarrita daude. (12. or.)

ELKARRIZKETA

Jabi Egidazu

Jabik ez ohizkoa den lanbide horietakoa dauka, marinela, hain zuzen. Lan gaitz honen berri eman digu. (19. or.)

PODIUMA

Inazio Maizbide

Jabalina jaurtitzaille honek, Bittor Alonso eta Jose Antonio Gay-rekin batera, domina jaso du azkenengo Euskadiko Txapelketa Absolutoan. (21. or.)



MODELO
BERRI-BERRIA
MUGARRI

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea	798777
--	--------

14 OSTIRALA

- **Zinea:** Alai: "Homebody" Novedades (Bergara): "El clic", 10,15etan.
- **Txotxongiloak:** Monterron Parkean, 8etan, Horacionen titereen eskutik, "Azeriaren banketea".
- **Zinea:** Monterron Parkean, 10,30etan "Stop Making sense". Zuzendaria: Jonhatan Demme.
- **Santamainako jaiak:** - 10,30etan: zinema umeentzat institutuan.
- 6etan: futbito txapelketa Makatzenan.
- gaueko letan: dantzaldia Acuarium-ekin.
— 12,30etan: zezen-suzko.
- **Goardiako farmazia:** Irizar, Erguin.

15 LARUNBAIA

- **Zinea:** Alai: "El muñeco diabolico". Novedades: "Arma joven", 7,30, 10,30.
- **Jazz emanaldia:** Monterron Parkean, 10,30etan "Txintxarri", bertako taldeaz.
- **Santamainako jaiak:** - 12,30etan: futbito txapelketa.
- 3,30etan: Mus, tute txapelketa.
- 4,30etan: xake txapelketa.
- 5etan: bolo palma sariketa.
- 5,30etan: pilota txapelketa.
- 6etan: txokolatada Agerren; Kiroldegian mutil zahar eta ez-konduen arteko partidua.
- 8etan: bigantxak eta pñiak.
- gaueko 11etan: dantzaldia Krubel taldearekin.
- 12,30etan: bigantxak.
- **Goardiako farmazia:** A. Ruiz, Maalako Errabala.

16 IGANDEA

- **Zinea:** Alai: "El muñeco diabolico". Novedades: "Arma joven", 5, 7,30, 10,15.
- **Santamainako jaiak:** -9etan: bolo palma sariketa.
-10etan: sancheski txapelketa.
-10,30etan: futbito txapelketa.
-11etan: haurrentzako jolasak.
-11,30etan: futbito txapelketa.
-12etan: hildakoen aldeko meza La Merced-en.
-1etan: txikiteoa.
-2,30etan: herri-bazkaria
-6etan: igel jokua.
-8etan: bigantxak.
-gaueko 10etan: dantzaldia, Gaurko Berri-rekin.
- **Goardiako farmazia:** A. Ruiz, Maalako Errabala.

17 ASTELEHENA

- **Zinea:** Alai: "El muñeco diabolico". Novedades: "Arma joven", 7,30etan.
- **Goardiako farmazia:** Español, Iturriotz.

18 ASTEARTEA

- **Zinea:** Alai: "El muñeco diabolico".
- **Goardiako farmazia:** Corcuera, Elcano.

19 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Amezua, Santamaina.

20 OSTEGUNA

- **Dantza emanaldia:** Monterron Parkean, 10etan, "Cía. Nacional de Mexico" taldearekin.
- **Goardiako farmazia:** A. Ruiz, Maalako Errabala.

ERAKUSKETAK

- **Zeramika:** Leintz Zeramika Eskolako ikastaroetan egindako obrak. Hilaren 16 arte.
- **Esme Gonzalez:** Argazkiak. Gatzagako Kultur Etxean. Uztaillaren 15 eta 16an; 12-2 eta 7-9.
- **Yara Pagola:** Pintura: oleo eta akuarelak. Galeria 44ean. Hilaren 15 arte.
- **Pello Alberdi:** Pintura: 16 lan abstrakto. Etxe Aundi jatetxean (Oñati). Hilaren 31 bitartean.

IKASTAROK

- **Dantzak:** Balsa, pasodoblea, tangoa eta cha cha chá. Hilaren 15 eta 16an; 10,30-12,30 eta 7,30-9,30; Musakolako Elizan. Prezioa: Kiroldegiko bazkideentzat: 2.500 pta. (besteentzat, 3.500). Komenigarria bikoteak eginda joatea.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.900 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta erantzunen erantzunkizunik.



Nigarrik ezean ditirik ez

Irudiaren garrantzia gero eta haundiagoa denean -mila hitzek baino gehiago balio omen du- gure gizartea ohituratua dugu publizitatearen alderditik iristen zaizkion mezuei erarik erosoenean aurre egiteko. Leize zuloetan bizi ziren gure arbasoen asmamen eta eskuetatik heldu zaizkigun ereduak garbi darakustenez, garai haietako gizakien kontsumorako beharrezkoa zuten publizitatea.

Harri Aroko aintzindari haien ezagupidetzan, naturaz gaineko indarrei animalien irudiak azaltzeak animalia haiei buruzko kontsumo haundiagoa adierazten omen zuen. Horren atzetik zebiltzan, behintzat. Ez dakit ordukoa izango ote den "nigarrik ezean ditirik ez" esatera entzutetsua; horrela ez balitz ere, hortxe hortxe ibiliko zaio, "homo sapiens" jakitun baldin bada -hain zuzen ere- bitartekoetatik ondorioak erdiesten dituelako baita.

Garai bakoitzari dagokio bere iragarki-sistema. Unean uneko baliabideetan oinarriturik sortzaileek mezurik egokiena aurkeztzen dute, helburura ahalik eta hoberen jotzeko. Hastapen haietako buztin gorria eta ikatz zatia ordezkaturia izan dira, hiru dimentsiotako diseinuaz eta adimen artifizialaren teknikaz. Hala ere, jomugak -ordukoa eta orain-

goa- berberak ditugu: gero eta sofistikatuago bilakatzen ari den gizadi honi, gizadiak berak sortarazten dituen baloreen ezagupidea eskaintzea. Eta ezagupidetik kontsumora, zuzen.

Harri Aroko artea deritzaio leizeetakoari. Ongi ipinitako titulua, izan ere irudi haietan gizon sortzailearen asmamena nabari baitaiteke. Mendetan zehar iragarkietarako euskarriak aldatzen joan dira, teknikaren garapenak aurrera jotzen zuen heinean. Artista anonimo artearen ereduak utzi dituzte kontsumitzaile-gaien multzora zuzenduriko mezuetan, iragarki bakoitzak sortzailearen gogoia darakusalarik. Hormak, liburuak, zuri eta beltzeko aldizkariak, orri solteak, egunkariak,... artista horiek historian zehar izan dituzten euskarri batzu ditugu. Gaurregun, koloretako aldizkariak eta telebista dira anai-arrebarik indartsuenak.

Ariketa atsegina bihur daiteke edozeinentzat, gure begietara ailegaten diren merkatal irudi horien gaineko ikuspen kritikoa. Arte joerak nondik nora dabiltzan, sortzeko ezinbestekoak dituzten bitartekoak nolakoak ditugun, mezuaren hartzailegai omen garenok, gure ohiturak aldarazteko edo bideratzeko kreaizaileek zilegiro ala ez erabilitako baliabideak epaitzea.

Josemari Velez de Mendizabal

ECUADOR

Kontzesifno 2, Tfnoa: 79 14 06

KLINIKA DENTALA

DOHANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

ALASA
ASEGURUAK

Zeuzertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

LAB

ELAk ateratako oharraren aurrean, LABek zera jakin erazi nahi du, Juan Jose Guridi Inaren lasaitasun-modu bat ematen duela eta ez bidezkoa den zerbait esatea. Panfleto guztian ez da ezer seriotasunez zuen planteamenduetan.

Esan LABek ez daukala bere aurpegia garbitu beharra inoren aurrean, ez bait du horren beharrik gauzak diren moduan esaten ditugu eta ELAtik horrela ikusten ez baduzue, aurpegian duzuen zikinkeria ikusten ez duzelako da.

Langileak ez nahasteko, zera gogorazi gura dugu, "zuen" aurreakordioa ez dela onartu (112-57) asanbladan. Beste gauza bat UGT eta LABek proposatuko mobilizazio-egutegia ere ez dela onartu. Bien bitartean, ELAkoak LAN ZIKINA egiten jardun duzue, batez ere laster jubilatu direnekin eta bulegariek, zuzendaritzarekin lortu duzuen akordioa geuri INPOSATZEKO. Langileek LUPARKERIA eta FASZISMOA deitzen diogu horri.

Zuen panfletoan aipatzen dituzuen metodoak nork erabiltzen dituen argitu gura dugu: LABek aurreko urteetako akordioak onartu ez bazituen, soldata-igoeraren (portzentuala edo lineala) aplikazio egitean zuen ezadostasunagatik izan zen. Zuen proposamenak aurrera ez zuela egingo ikusi zenutenean (igoera portzentuala), Asanbladatik joan zineten, gehiengo zaretenez, zuzendaritzarekin negoziatuko zenutela esanez. Jokaera horrek ere LUPARKERIA eta FASZISMOA du izena. Honela deitzen diogu ELAn Probin-tziako azken konbenioan mantenu zenuten postuari zeren akordioa hautsi zenituzten greban zeuden lan-kideek etorri behar izan zutelarik, kalera irten gintezan.

Azkenik, esan LABek ez duela "Zuen" akordioa sinatuko, Asanbladak ezetza eman dio eta. Zuentzat BALIO badu, larrusendo batzuk zaretelako da.

Zuzendaritza soka laburrez zaituzte loturik. Saririk emango dizue-

tela ere badakigu, laster gainera, eta zuetako batzuk Enpresan gora egingo duzuela ez dugu zalantzarik.

Langile Abertzaleen Batzordeak

Sindikalistak ala kontukontariak

Azken aldizkarian RONEOkoak direla esaten diguten batzuen ustetan ELAk lortu duen komenioa txarra omen da.

Igoera handiagoa posible zela?, komenio hobe batera iristen ez den bitartean, hori kontu hutsa da eta beharbada gezurra da.

Gutxi batzuk geurea egin dugula. Nola orduan gehiengo zaretela uste duzuenok ez dituzue zuen helburuak aurrera eraman eta lortzen? Nork galarazi dizue, ba? Ez al genituen ba, lortu dena txarra izan dela esaten dutenak eraginda, grebak egin?

Zer nahi den jakitea nahiko erraza da, baina posible zer den neurtzea batzuk ez dakite. Horregatik dirua galtzera baino ez gaituzue bultza.

Lortu dena eskasa dela? Non eta nork lortu du gehiago? Apirilaren 29ko Arrasate Press alean agertzen denez, Deba Garaiko 35 enpresetan, Ularcon ezik, izan den batz besteko igoera %7,085koa da. RONEOk %7a eta beste zenbait hobekuntza.

Jaunak, kontuekin ez da jaten!

*RONEOko ELAko
Sekzio Sindikala*




Zein telesaio duzu gogokoen? Zergatik?



Sonia Sesto
(ikaslea)
Funtzioa, niretzat politena delako.



Aitor Okina
(ikaslea)
ETB-2ko Drt. Livingston supongo. Gorabehera handiko saioa delako gustatzen zait, abenturak eta horrelakoak ikusteko aukera izaten dugu.



Kaiet Carabias
(langilea)
Oso telebista gutxi ikusten dut eta ez dakit zein saio dauden, baina TVEko Informe Semanal adibidez gustatzen zait.



Yolanda Martinez
(Ikaslea)
ETBko pelikulak ditut gustokoen, entretenigarriak direlako.

LENIZ
AUTO ESKOLA
ARRASATE-Aldai, 9
ESKORIATZA-Arana, 13

**I
R
A
T
I**
Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

SOKOA
Zeharkale estalia
Arrasate

KAJOI TABERNA
erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27

“San Juanetan halako komunak erabiltzea erabateko frakasoia izan da. Udalak horrelako zerbitzuak erabiltzen dituen lehen aldia genuen eta badirudi alperrik gastatu dituela 200.000 pezeta, Herriko Plaza, Garibai, Zezen plaza inguruan eta Arbolapetako bi kabinak alokatzeak balio zuena, hain zuzen ere.

Gutxi erabili dira eta askok nahiago izan du lehenengo hurbildu eta bertan egin beharrekoak egin. Adibide garbiena Herriko Plazakoa izan da. Bertan jarritako kabinak ia erabili ere ez dira egin eta alboan musika-kioskua zegoen, herriko txizaleku nagusia, hurbiltzen ere uzten ez zuen kiratsa zeriola.”

(Txema Urzelai kazetariak DV egunkarian)


“Baserriak produzko eta ogibidean oinarrituta, indar gutxi badu ere, ideologikoki eta simbolikoki duen garrantzia ez da gutxitu. Hau ikusteko interesgarria da nekazal inguruko elementuak hartuz zenbait instituziok egiten duen propaganda. Ziurrenik Lankide Aurrekia da adibide argigarriena, zeren honek argitaratutako kartel eta egutegiak bait dira askogatik denetariko instituzio publikoetan (diputazio, udal, denda, ikastola...) gehien ageri direnak, eta hain handiak izanik, nekez geratuko gara erreparatu gabe. Adibidez, LKAren 25. urteurrena zela eta, argitaratutako kartelean bikote gazte indartsu eta osasuntsua ageri da baserritar jazkeraz. Irudiaren mezu idatzia berriz honako hau: gazte bizi ziur. Paradogikoa bada ere, etorkizuneko ziurtasuna desagertzeaz dagoen bizikera bati lotuta ageri da hemen kartelean”

(Begoña Aretxaga antropologoak “Los funerales en el nacionalismo radical vasco” liburuan)

“Hamabost urte nituela, kuadrila Oñatiko Araotzera joan giñuan, bazkaltzera, festak zirela eta. Barrena delako bat ari zen bertsotan. Antzeman nioan nik, kontxo, hau nere modukoren bat izango duk, eta hasi ninduan ni ere, eta hor jardun genian, plazan, mahai baten gainean. Ni etxera etorri eta isilik. Korputz egunean aita joan duk Oñatira bertsotara, eta eman zioz norbaitek erretratua, gu bertsotan ari garela mahai gainean. Etxera etorri eta danba erakutsi zidan. Han nabarmendu zen nere pekatua.”

(Sebastian Lizaso bertsolari txapeldunak DV egunkarian)

Zergatik antolatu dituzue Udaleku Irekiak? Zein da beren helburua?



Udako oporraldia da, umeak Udalekuetara joaten direneko sasoi. Nekatilamutikoek, etxetik kanpo, lagunartean biziz primeran pasatzen dute. Horrez gain, askorentzat ikasturtean zehar euskara bereganatzen egindako lana sendotzeko baliabide apartekoa bihurtzen dira. Iaz arte Arrasateko haurrek beraietan parte hartu nahi bazuten, derrigorrez herritik kanpo horretarako bereziki prestatuak diren akanpalekuetara joan behar zuten. Bada, halere, hainbat haur, adina, diru edota beste arrazoi batzuzengatik joan ezinik geratzen dena. Udaleku irekien asmoa horixe litzateke, hau da, Arrasatetik kanpo joan ezinik geratzen direnei Udalekuen esperientzia hurbiltzea, aktibitate dibertigarri eta erakargarriak eskainiz.

Bestalde, gaur egun, begi bistakoa da haurrek orohar, gehiengo batek euskara dakien arren, giroaren eraginez gaztekerarako duten joera nabarmena. AEDk bigarren aldiz antolatu dituen Udalekuen helbururik nagusia joera horri aurre egin eta umeen arteko harremanetan euskararen erabilera indartzea da, horretarako ohizko hizkuntza euskara izanik gure iharduera guztian, jolas, tailer, etab.etan. Azkenik, umeak esperientzia berriak bizitzea nahi dugu, konfidantzako giroan murgilduta, haur berriak ezagutzea, lagun berriak egitea, natura eta bertan dugun ingurunea ezagutzea.

Iban Arana

AEDren Udaleku Irekien arduraduna

Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA
LORAZANTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94 - 6819082 ABADIÑO (BIZKAIA)

Musika Emanaldia
JAZZ eta DANTZALDIA



Uztailak 15, LARUNBATA
10,30etatik aurrera
Monterron Parkean
Sarrera DOAN

MEXICO
COMPAÑIA NACIONAL DE DANZA
FOLKLORICA



Uztailak 20, OSTEguna
Gaueko 10etan
Monterron Parkean
Sarrera: 300 Pta.




Arrasateko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobe-
bekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrakusi bezala gerta daitezen.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

Errentagarria, zergarigarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen
dirua.

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

Oso interesgarria eta zergarigarria. Seguru hazten den dirua.

AURREZKI-PLANA

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den di-
rua da.

**AURREZKI-KUTXA
MUNICIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

prentsaren begia

OSTIRALA, 7

CORREO: "Pobreziaren aurkako borroka-planaren barruan, eskaera-kopurua gehitu egin da azken egunotan Arrasaten"

DEIA: "Ibaiaren kutsaduraren aurkako kanpaina"

DV: "Udalekuak Arrasaten 6-12 urte bitarteko umeen partaidetzaz".

EGIN: "Gazteria arloak bakarrik erabiliko du Garibai Etxea"

LARUNBATA, 8

CORREO: "Deba Garaiko enpresen errentagarritasuna igotzeko, hobekuntza teknologiko eta antolamenduzkoak eskatzen sindikatuek".

DEIA: "Ohizko erromeria San Kristobalera"

DV: "Urrearen zozketan, 6 milioi pezeta saltzeko konpromezua hartu du Deba Garaiko Gurutze Gorriak".

EGIN: "Iturripeko polikiroldegiaurre proiektua datorren astean aurkeztuko da"

IGANDEA, 9

CORREO: "Ferial-eko pilotalekua eraikitzekeo ideiak finkatu ditu Arrasateko Udalak"

DV: "Aramaionako San Kristobal ermitan egon daiteke gaurko jai-giroa".

EGIN: "Konbenioaren sinaduraren aurrean, ELAren eta Zuzendaritzaren jarrera salatu du Roneo-ko LABek"

ASTEARTEA, 11

CORREO: "Arrasateko Udaltzako Amaya antzokiaren birmoldaketarekin Irailera arte ez dela hasiko uste."

DEIA: "Roneoko LABek konbenioaren aurrean ELAren negoziazioa kritikatu."

DV: "Hiru domina, zilarrezko bi eta brontzezko bat, Euskadiko txapelketan"

EGIN: "Aurrekontu-kredituak aldatzea, hurrengo Plenoan."

ASTEAZKENA, 12

CORREO: "Ferialeko pilotalekua egiteko aurreproiektuan dagoen aurrekontua hil honen amaierarako ezagutuko da."

DEIA: "Udal Bideoteka, laster martxan."

DV: "Naturgas eta auzotarren koordinadorearen arteko bilera, "gorren eztabaidatzat jo"

EGIN: "Pobreziaren aurkako kanpaina, dagoeneko larrialdiko 25 laguntza-eskari jaso dira."

OSTEGUNA, 13

CORREO: "Hil honetarako Deba Garaiko Udal Elkarteak deitu dituen bide-sareari buruzko jardunaldiak irailera arte atzeratu"

DEIA: "Ixiltasun zehurrak, Txosa arazoaz"

DV: "Ferialeko pilotaleku berria egiteko aurreproiektuaren lehen zirriborra"

EGIN: "Irailen "Arte Hamabostaldian" 6 tailer parte hartuko"

Usteak uste...

"Martxa" egon omen da Sanjuanetan, "giro sano eta alaia". Jende gutxi, ordea, gastatu diren hamaika milioitarako. Inori gustatzen ez zaizkigun ondorioak ere ekarri dizkigute jaiak: S. Viator ikastolak 200.000 pta. ordaindu beharko ditu hautsi dizkieten kristalengatik; Gurea zinema ondoan zegoen magnolia apurtu egin dute; tabernetan ehundaka edalontzi desagertu dira, kaleetan zehar mila zati eginda agertzeko; demonioak uxatzeko moduko txiza usaina festagune gehienetan, batzuetan udalak aurten, 200.000 pta. ordainduz ipini dituen komun mugikorren ondo-ondoan, etabar. Hala ere, berriro diot, giro sano eta alaia egon omen da, herriko zenbait kronikak behintzat, hori esan dute.

Harrigarria da, ez Arrasaten soilik, baita Euskal Herri osoan ere, herrietako jaiak nola eta zenbateraino aldatu diren: gauaren protagonismoak, dezibelioek eta ganberrokeriak gora egin duten neurrian, higie-neak eta herritarren parte hartzeak behera egin dutela ematen du. Mereziko luke ikertzeak susmoak baino ez diren jakiteko edo errealitate hutsa. Edozein modutan ere, lagundu egingo liguke geure buruak hobeto ulertzen. "Esaidazu nola dibertitzen zaren eta esango dizut nolakoaren".

Txalogarria, bukatzeko, udalak zortzi komun mugikor ipintzeko hartu duen erabakia, aurten gehiegi igarri ez bada ere, gauzak zuzentzeko borontatea adierazten du eta. Datorren urtean gehiago erabiliko ahal ditugu!

Joxe Aranzabal

**Zubizarreta
Tailerrak**



Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa 79 15 65

**BATZOKIA
jatetxea**

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

Epaiketa, suspendituta



Epaiketa honengatik protestak izan dira

Hilaren 12an, suspenditu zen Madrileko Epaitegian J. Inazio Gaztañaga eta Luis M^o Azkargorta *Kanto*-ren epaiketak. Epaiteketa ez zen burutu *Gaztak* hilaren 5etik, Alcalá-Mecoko beste preso politiko guztiekin batera, daraman gose grebak oso ahulduta utzi duelako. Grebarekin salatzen dute sei preso politikori, ezarritako prebenzioko zigorra, komunei bakarrik ezartzen zaiena, alegia. *Gazta* 88ko Martxoaren 29an atxilotu zuten, Intxaurren hiru egun igaro eta gero, Herreñan eta Alcalán izan da. *Kanto* 88ko Apirilaren 20an Madrileko Epaitegiaren aurrean aurkeztu zen Goardia Zibila bere atzetik zebilela jakitean. Carabanchel, Alcalá eta Herreñan izan da.

AED Astialdikiko Begirale-Eskola sortzeko asmotan

Azkenengo alean AEDren udalekuen arrakastaren berri ematen genuen, iaiztik hona partaidetza asko handitzea lortu bait dute.

AEDk, Uztailean izaten diren hauetaz gain, urtean zehar larunbatero B eredu eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen ditu. Egitasmoa iazko ikasturtean hasi zen, eta 300 umek hartu zuten parte bertan. Datorren ikasturtean, Irailetik Ekainera,

esperientzia errepikatuko da.

Hau dela eta, monitoreak bertan prestatu ahal izateko, orain AEDk bere astialdikiko begirale-eskola propioa sortzeko asmotan dabil. Momentu honetan Eusko Jaurlaritzaren baimen eta lizentziak lortzeko beharrezko papeleoak egiten ari dira, datorren ikasturterako eskolarekin hasteko asmoa dagoelarik. Ez daude lo, ez, AEDko lagunak.

aretxagazeta UDA 89

14 orri indibidualak (14 orri)
 • Gut egiteko gure burua (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 1. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 2. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 3. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 4. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 5. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 6. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 7. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 8. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 9. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 10. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 11. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 12. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 13. liburukia (14 orri)
 • "Aretxagazeta" aldizkariaren proiektuaren 14. liburukia (14 orri)

NOIZKO GAS NATURALA MARTXAN?

Hau martxoaren 27an zen. Euskoalduko lehen herria zela eta, osatzen izan zen, eta jarduera orri bakoitzaren gain hitzartuak izan ziren. Gure erregulazioa ez da inoiz izan, eta horrek eragiten du gas naturala ez izanik ere, eta horrek eragiten du gas naturala ez izanik ere, eta horrek eragiten du gas naturala ez izanik ere.

Industria (BERPURTARIEK, EKINTZAK, JAUNBARTZAK, ITABAR)

AJ ARGAZKI FOTOFONIA

Herrero Esporontziak Tfnoa: 79 39 20

VRKIOLA ARTXAGAZETA

Aretxagazetan ere, gas naturala aztergai

Aretxagazeta, 2. alea

Kalean dago, Ekainaren 21eko dataz, *Aretxagazeta* aldizkariaren 2. alea. "Noizko gas naturala martxan?" dugu ale honen gai nagusia. Honetaz gain, uraren problema, Urkuluri buruzko kolaborazio ekologikoa, Agustin Abasolo, bertako baserritarrarekin elkarrizketa, udaleku irekiak, kirol-orriak, ziklismo eta saskibaloieri buruzkoak, inkesta fotografikoa, etab.

Lehen alean baino lau orri gehiagorekin, aldizkari osoagoa lortu dute. Maketazio aldetik ere, hobekuntzak. Hirugarren orri osoa, eta hainbat iragarki izan ezik, euskarra nagusi.

X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

Erreumatismo handigarriak (erreuma-artritis, espondiloartritis, lupusa, hezueria...) Hezurretako gaixotasunak (Osteoporosia, osteomalacia, pagets) Artrosia, lumbagoeriak, ziatikak, garondoeria, etab...


KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxebea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

MUSAKOLAKO OSTATUA

- Taberna
- Jatetxea
- Bazkariak
- Bodak
- Banketeak
- Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfna: 79 20 50



Artegunea San Frantziskoko kalistroak izango dira

Arte hamabostaldia Irailean

Azkenengo Gobernu-Batzordean onartu zen 18 gaztek aurkeztutako arte egitasmoa. Proiektu hau, lau urtetan zehar egin diren Eskultura Sinposiumen alternatiba, agertaldi bizietan eta kutsu didaktikoarekin garatuko da. Sei tailerrek osatuko dute proiektua: bideoa, grabatugintza, pintura, zeramika, argazkigintza eta eztabaida tailerra; Hamabostaldia, esan bezala, Irailean burutuko da, 4etik 17ra edo 11tik 24era, oraindik erabakitzeke.

Tailerak kalistron eta Ospitale zaharreko lokal batzuetan burutuko dira. Hamabostaldia behin bukatu

ondoren, Udalak hainbat obra eskuratu ditu: hiru grabatu, hiru margo, bi zeramika, hiru argazki, bideo luzemetraia eta memoria bat. Esan behar inizatibaren kostua ez dela batere garestia; 2.800.000 pta.ko aurrekontua bait du, sinposiumaren kontusailari moldatutakoa.

Bertako artista talde hau duela sei hilabetetik hona hasi da lanean proiektuan, eta besteak beste, honako gauza bitxi hauek kaleratuko dituzte: neurri handiko argazkiak, grabatugintzaren prozesua, guztiz ezezaguna dena, kaleko ekintzak, etab.

El Ferialako frontoiaren aurreproiektua aurkeztu

Javier Ortega arkitektoak aurkeztu zuen azkenengo Gobernu-Batzordean El Ferialen izango den frontoiaren aurreproiektua. Falta dena oraindik honen aurrekontua zehaztea da; hile hau bukatu baino lehenago, ezagutuko da. Oraingoz frontoi estalia egiteko 75 milioiko kontusaila dago.

Saiolan

Saiolan-ek konbenio bat sinatu du Baionako I.U.T.-rekin bi enpresen promoziozko proiektuak Saiolaneekin aurrera eramateko. Horrela, Irailean Frantziako zenbait unibertsitatetan prestatutako Iparraldeko sei ikasle (injenieru, arkitektoak, etab.) hona etorriko dira sei hilabeterako proiektuak gertatzeko.

Isurketak egiteko baimenak ez

Meatzerrekako zaborteziaren ondoko ibarbiden isurketak egiteko biztanle batek eskatutako baimenaren aurrean, Udalak zera esan du:

Ibarbideak behar dituen kanalizazio lanak, eta Epeleko isurtegiaren martxan hastean Meatzerrekako Zabortezi geldiaraziko dutela ikusita, Udalak ez du eman baimenak toki hori zabortezi gisa erabiltzeko.

VICTOR RUIZ MELGAR

Margolaria

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PEÑACOBÁ

Auto-Eskola

Zarugalde, 46

Tfnoa: 79 29 93
79 14 01

ARRASATE

Aste honetan zinea aire zabalean, txotxongiloa, jazza eta dantza

Aste honen Udal kultur programaizko barruan, ostiralean Monterroneko Parkean burutuko diren bi ekitaldi: "Horacioren txotxongiloak"; eta "Stop Making Sense" pelikula; larunbateko jazz emanaldia, "Txintxarri" taldearekin, eta datorren osteguneko Mexikoko "Compañía nacional de danza folklórica"ren dantza-emanaldia (zehaztasun gehiago agendan).

"Horacioren txotxongiloak" taldea Horacio Casais eta Horacio Herman Koncke-k osatzen dute, 1972tik arlo honetan ari dira lanean. Aurkeztuko duten obrak "Azeriaren banketea" du izena. Animaleen fabula tradizionala dugu, muntaian musikak ere kabida duelarik.

"Stop Making Sense" pelikulari dagokionez, Talking Heads musika-taldeak 1983an Hollywood-en emandako lau kontzertuen zatien grabazioa dugu. Pelikulak oso kritika onak ditu. Zuzendaria, Jonathan Demme.

Larunbatean "Txintxarri" taldeak jazz eta dantza emanaldia aurkeztuko du. Txintxarri Arrasate eta Aretxabaletako jazzteek osatzen dute. Hau izango da talde gazte honen aurkezpena.



"Stop making sense" Talking Heads-en pelikula gomendagarria

Eta hilaren 20an, Mexikoko "Compañía Nacional de Danza Folklórica"ren aktuazioa izango dugu Arrasaten. Nieves Paniaguaren koreografiaren zuzendaritzapean, danza azteca, Chiapas, Huapanangos, Nayarit, Oaxaca, Nuevo León, Veracruz, Sonora eta Jalisco dantzatuko dute. Beste ekitaldi guztiak bezala, Monterroneko Parkean izango da.

■ Santamainako jaiak

Uztailaren 14tik 16ra Santamainako auzoak bere jai patronalak ospatuko ditu. Dantzaldiak - Acuarium, Krubel eta Gaurko Berri taldeekin-, zezen-suskoak, bigantxak, poniak, makina bat txapelketa (mus, tute, xake, pilota, futbito, sancheski, bolo-palma...), haurrentzako jolasak, bazkari herrikoia etabar luze batek alaituko du auzoa egun haueetan. (Ikus 3. orriko agenda). Aurten jaiak 1.100.000 pta.ko aurrekontua dute.

Aparejadorea

Aparejadore bat behar da Mondragoeko Udaletxean. Postu honetarako aurkeztu nahi duenak arauak eskura ditu Arrasateko Udaletxean, instantziak 19a baino lehenago bete beharko dituelarik.

JAIOTZAK

Enekotegi Ibañez Amaia
Ekainaren 30ean.
Alcalde Martínez Eneko
Uztailaren 2an
Bergaretxe Muñoa Aratz. 3an
Elizburu Sierra Ander. 3an
Muñoz Valenti Unai. 4an
Rayo Sanchez Yago. 5an
Perez Garcia Nayua. 8an
Urteaga Peña Xabier. 8an
Gonzalez Garcia Maider. 9an

EZKONTZAK

Gerardo Armendariz Ramos &
Izabella Blezien. Zibilez.
Juan Jose Maltras Agirre &
Sara Iglesias Miguel. Zibilez.
Javier Garai Elizaran &
Izaskun Murua Larrea. Elizaz.



comercial
SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,
STANDARak ETA NEURRIRA.**

**DATU-BASEAK
OFIMATIKA
MANTENU-ZERBITZUA
*Ekipamendu eta programak
*Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR

Errekak bizirik

Aste honetan zehar Eguzki taldea "Errekak bizirik" izeneko kanpaina burutzen ari da. Honen barruan, hainbat hitzaldi izan dira inguruko herrietan, asteartean Arrasateri tokatu zitzaizolarik. Gaia interesgarria izan arren, Arrasateko hitzaldia suspenditu behar izan zuen, bakarrik zazpi lagun, hizlaria bame, bildu bait ziren Monterronen.

Hitzaldian 60.ko hamarkadatik aurrera planifikazioarik gabeko hedakuntza industrialak Ego eta Deba erreketarako ekarri zuen desastre ekologikoaz berba egin behar zen. Hurrengoan izango da. Ostegunerako uholdeari buruzko hitzaldia iragarrita zegoen.

Kanpaina hau hilaren 16an, igandea, bukatuko da Debarako IX.



Gure bailaran errekek hilda daude

bizikleta martxa Eskoriatzatik 9etan, eta Oñatitik, 9,30etan bi kolumnak urtengo dute. 1,30etan kolumna guztiak Deban bilduko dira.

■ Udal bideoteka, laster martxan


Datorren irail edo urrirako Monterroneko udal bideoteka martxan egotea espero da. Bi urtetik hona, hau osatzeko hainbat material erosi da; orain arte hitzaldi eta erakusketak antolatzeke erabili da.

■ Urbia gune naturala

Deda arroko Eguzki, Eki, Aloña Mendi, Katagorri, Txantxangorri, Amilotx eta Mendia Bizirik taldeek komunikatua kaleratu dute Urbia gune natural babestua izendatzea eskatuz. Dokumentuan Urbiak jasaten duen hondamendia salatzeaz gain, pista edo antzekorik egiteko proiektu guztiak geldiaraztea eskatzen dute, gune honen ordenazio-estudioa burutu arte. Estudio honen helburua orreka naturalean eraginik sortu gabe, errekursoen aprobetxaketa nolakoa izan behar den finkatzea litzateke.

Monterroneko eskenatokia zabaltzen ari.

Orain arte oso gutxi erabilia izan den Monterroneko eskenatokia, badirudi hemendik aurrera, kultur ekitaldietarako gehiago erabiltzeko asmoa dagoela, udako hilebeteetan, batipat. Horra hor, bestela, ostiraletako zinea, antzerki saioak edo izango diren jazz eta dantza emanaldiak. Horregatik, 3.045.403 pta.ko aurrekontuaz, eskenatokia handitzeko obrak hasi dira. Ea hemendik aurrera joku gehiago ematen duen, kultur ekintzak burutzeko inguru zoragarria dugu eta.



comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**

■ Preso, errefuxiatu eta deportatuen senideen mozioa ostiraleko plenoan

P.E.R.I. eta hainbat Unitateri buruzko Hirigintzako sei puntuk eta, preso eta errefuxiatu sakabanaketa dela eta, euren eta deportatuen senideen mozioak betetzen dute ostiraleko plenoko gai zerrenda.

Azkenengo gai hau izan daiteke eztabaida sortuko duena. Mozioak zera dio: *"sakabanatze politikoa honek, presoek zigorra gehitzeaz gain, familiarrek bisita egiteko ezintasun erreala suposatzen digu"*, horregatik *"Udal honek bisita hauek sortarazten dituzten gastuak betetzeko konpromezua har dezala"* eskatzen dute. Taldekako bidaietan, 30en bat preso gartzela berean dardela suposatuz, kalkulatu da familia bakoitzak urtero 816.000 pta. gastatzen dituela. Hau dela eta, *"Arrasateko udal plenoari egoera hau salatzea eskatzen diogu, telegramak eta hitzarmenak Espainia eta Frantziako Estatuko gartzela ezberdinetara eta gure herriko seme-alaba deportatuak dauden herrialdeetako enbajadetara bidaliz; eta familia bakoitzari hilero gutxienez 15.000 pta.ko dirulaguntza eskatzen dizuegu"*

Mozioan, bestalde, senitarteei jarritako eragozpenak presoak bisitatzeko orduan, eta hainbat preso arrasatearren egoera latza salatzen dira: Jesus M^a Zabarte, Carabanchelako sotanoko gela ilun batean sartuta ekainaren 6tik; Enrike Letona eta Jose Inazio Gaztañaga, gose greban Alcala-Mecon Uztailaren 5etik; Angel Iturbe, deportatua Santo Domingon, ulzera gastriko batek jota, eta inolako tratamendurik gabe.

T x a n d a k a

UEU, hamazazpigarrena aurten

Egunotan askotxo mintzatu eta idatzi da prentsa-medioetan. Ni neu nekaturik eta batzutan, apur bat nazkaturik inkluso, sentitzen naiz hamaika tokitan, irrati zein egunkarietan, gauza berdintsuak errepikatu behar izateaz.

UEU aurtengo ekitaldia hamazazpigarrena da eta Iruñean egingo den hamabigarrena. Zer da UEU? Erraza da erantzutea: UEU unibertsitate euskalduna lortzeko borrokan dabilzan lagunak biltzen dituen kultur elkarte da.

UEU lanean hasi zenean, 1.972.ean, ez zegoen Euskal Herrian Euskal Herriko Unibertsitate izena zuen erakunderik, artean Euskal Herria lau barruti unibertsitarioren menpe zegoen eta. Euskarak noski, ez zuen gure herrian kokatutako unibertsital zentruetan inolako tokirik. Euskara unibertsital komunikaziorako erreminta moduan eta lurraldetasuna ziren orduko errebindikazioak.

Egoera politiko eta soziala aldatzen joan dira urteen poderioz. Egun, Euskal Herriko Unibertsitatea izeneko erakundea badugu (nahiz eta Euskal Herri osora ez zabaldu) eta gainera euskarak bere zatia (txikia oraindik) badu unibertsitate horretan beste batzuen artean UEUK eginiko lanaren ondorioz. Unibertsitatea euskalduntzearen bidean hasi gara jadanik. Horregatik UEUren helburuetan alderdi eta ikuspegi berriak azaldu dira azken urteotan. UEUK tankera eta ideia guztietako euskal unibertsitarien biltoki eta topaleku izan nahi du gaur. Eta hori da, ene aburuz,



Iñaki Irazabalbeitia*

UEUK etorkizunean bete beharko duen funtziorik garrantzitsuena (benetako Euskal Herriko Unibertsitatea lortuko dugunera ere).

Iruñea da UEUK kalera begira duen lehiorik garrantzitsuena eta eragingarriena baina ez da hori bakarra. Izan ere, UEUK beste zenbait

ikastaro antolatzen bait ditu Euskal Herri osoan. Iruñekoak baino zenbait egun lehenago Baionan (UEUren sorlekuan) iparraldeko kultur eskakizunei erantzuna emateko prestatutako ikastaldia burutu da.

Bestetik, UEUK Donostia eta Bilbon ere egiten ditu ihardunaldiak. Hauek beste ikuspegi batetik antolatzen dira. Unibertsitatean egiten dena jendeartera hitz lauz eta ulerkorrez eramatea da helbururik nagusiena. Udazkenean izaten dira ihardunaldi hauek eta hitzaldiz eta mahai-inguruz osatzen dira. Aurten, mota honetako ekintzak Gasteizera ere zabaldu gura genituzke.

Iruñean guztira 24 ikastaro izango dira, astebetekoak batzuk, bi astekoak besteak, Iruñean uztailaren 17tik 29ra. Ikastaroen edukina ezagutu nahi baduzue Arrasateko Udaletxean badute programa edo bestela, dei egizue Donostiako 42 99 45 edo Bilboko 431 71 45 telefonoetara. Ikastaroen kostua (matrikula eta egoitza) bi astetarako: 35.000 pta. langileek eta 25.000 pta. ikasle eta langabetuak eta astebetarako 17.500 eta 12.500, hurrenez hurren. Dena den, zenbait udal (Arrasatekoak barne) herritarrak UEUra joan daitezzen dirulaguntzak ematen dituzte.

Iñaki Irazabalbeitia
UEUko Zuzendaria

UGARAN
jatetxea

Garagarza auzoa - t/797658 Arrasate

empresa
bazkariak
eta
famili bilerak



**Elkarrizketatzai-
leok,
entrebistatuta.**

Lehengo egunean gazte hauek gu elkarrizketazera hurbildu ziren.

Lorena Garro,
Maider

Etxebarria eta Nagore Elexpuru dituzue etorkizuneko kazetariak.

izen propioak

□ **Fran Iturbe**, 24, musikari bergararra *Jo ta Kie* talde azpeitiarraren kitarrajole berria da. Aurretiaz *Seska* taldean eta *Los Clan* jazz-orkestra iruñearrean aritua, Franek (gizarte-laguntzaile bera) perkusioa eta beste zenbait musika tresna ere jotzen du. Parte hartze handia izan du *Jo ta kie*-ren irtetear dagoen hirugarren diskoan.

□ **Pello Alberdi**, 31, pintore elgetarrik gai abstraktoa duten 16 margo erakusten ditu, Uztailaren 31a bitartean, Etxe Aundi jatetxean. GK Aurrezki Kutxak antolatutako pintore hasi berrientzako lehiaketan irabazlea. Pellok erakusketa ugari egin du, bakarka zein taldean Eibar, Iruñea, Gasteiz eta Bruselas aldean. Artelekun ere ibilia dugu, Robert Illimos-ekin.

□ **Begoña Mujika**, Bergarakoa, orain arte Barrutiko Epailea, Bake Epaile izendatu dute. Begoñak Zaragoza eta Donostian ikasi, eta Bergaran ordezkako fiskal gisa egin zuen lan. 1981etik hona Arrasateko Epaitegian dabil. Bake Epailea Abendurako funtzionatzen hasteko asmoa badago ere, zenbait iturrik beranduago hasiko dela diote.

□ **Juan Antonio Martinez**, 31, atxabaltarra. Aretxabaletako kontuhartzailea, orain idazkariaren lanak ere egiten ari da herri honen Udaltxean, idazkari berria aukeratu arte. Orain gutxi arte Arrate Urreta ibili da idazkari, lau urtez.

□ **Pello Bengoetxea**, 32, ondarrutarra. Euskarazko irakaslea Gasteizen, hurrengo denboraldian Mondrako entrenatzailea izango da. Azkenengo bost denboraldietan Aurrera de Vitorian ibili da entrenatzaile. Orain Albeceten dago entrenatzaile nazionalaren titulua ateratzen.


Zabalik dago, hilaren 16a bitartean Monterroneko goiko pisuan, **Leintz Zeramika Eskolako ikastaroetan egindako obren erakusketak**. Denetarikoz piezak aurki daitezke bertan: ontziak, azulejoak, etab. Ikustea merezi duen erakusketa.



Jesus Fernandez eta Mila Murillo, biak arrasatearrik, Ekainaren 2an ezkondu ziren Eskoriatzako San Viator Elizan. Zorionak. Azken aldi honetan ezkontza ugari ospatzen ari da herrian.



LASO-ARREGI



Anboto

SALDU ALOKATU EDO TRASPASATU.
LUR INMUEBLE edo NEGOZIOREN BAT SALDU, ALOKATU edo TRASPASATU NAHI BADUZU dei ezazu 79 20 48 Tfnora.

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Iurriotz kalea 11, Tfnora: 79 20 48 ARRASATE

URRATS


AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnora: 79 87 74

ARRASATE

Gas-naturala Arrasaten, desadostasunak tarifetan

Gure aldizkaria kaleratzen hasi eta ale gutxira gas-naturalari erre-
portaia eskaini genion. Arrasatearrok gasaz disfrutatzeke genuen auke-
raz eta honek eskaintzen zizkigun abantailez aritu ginen orduan. Dena
dela, ordutik hona zenbait hilabete igaro da, eta gasaren banaketaz
arduratzen den enpresaren eta gasa kontratatu nahi duten arrasatear
batzuren artean arazoak nagusitu dira, gasaren tarifak direla eta.



Istilu eta guzti ezin ukatu gas naturalen abantaiak

Gasa eta beronen tarifak

Gas-naturalaren tarifak Estatuko
Ministrari Kontseiluak jartzen ditu,
Estatuko monopolioa diren beste
produktuenak bezalaxe, gasolinare-
nak, esaterako. Hala ere, Eusko
Jaurlaritzak gai honi dagozkion
kompetentziak bereganatuta ditu eta
gasaren banaketaren ardura Natur-
gas enpresaren esku utzi du. Gasaren
banaketa egiterakoan, Naturgas
enpresak tarifa ezberdinak eskain-
tzen ditu, gasaren kontsumoaren
arabera; beti ere kontutan izanik,
gasa kontratatzen duena enpresa,
komertzio edota etxebizitza izan,
desberdinak izango direla eskaintzen
diren tarifak. Etxebizitzak duten
kontsumoaren arabera, hiru tarifa
ditugu, D1, D2 eta D3 (etxeko tari-
fak). Gasaren kontsumoa termiatan
neurtzen da, honen arabera, urtean
5.000 termia baino gutxiago gasta-
tzen duten etxeei D1 tarifa aplikatu-
ko zaie, termiako 5,3 pta. ordainduz.
5.000 termia eta 50.000 termia bitar-

teko kontsumoa duten etxebizitzei
D2a aplikatuko zaie, 4,5 pta. or-
dainduz termiako. Azkenik, D3 tari-
fa urtean 50.000 termia baino gehia-
goko kontsumoa duten etxebizitzei
aplikatzen zaie, termiako 3 pta. bai-
no ez dutelarik ordaindu behar.

Arazoaren nondik norakoak

Uribe auzoa eta Arrasate dorreko
biztanleek, denentzat kontadore bat
jarrita, urtean 50.000 termia baino

dirudiena baino korapilatsuagoa da;
Naturgas enpresak, gasaren banake-
tari ekin zionean, beren etxeetan
propanoa jarririk zuten etxeetako
biztanleei D3 tarifaren eskaintza
egin bait zien.

Beren etxeetan propanoa dute-
nek, denentzat gas bonbona bat dute
jarririk; ondoren bakoitzak bere
etxean kontadorea duelarik bere
kontsumoa zein den jakiteko. Beraz,
Naturgasek depositoa dagoen tokian
kontadore kolektiboa jartzeko
aukera eman zuen. Hau da, hain
zuzen ere, Uribe auzoa eta Arrasate
dorreko biztanleen eskakizuna
kontadore kolektiboa jartzearena.
Hala ere, hilabete batzuk geroago,
eskaintza hau legez kanpoko dela
eta D3 tarifa aplikatzerik ez dagoela
azaldu zuen Naturgasek.

Zenbait azalpen

Zenbait iturritatik jaso ahal izan
dugunez, monopolioak diren pro-
duktuak ezin dira berriz saldu. Hau
da, partikular batek gasolina bana-
tzaile ofizialari erosi ondoren, honek
ezin du berriz gasolina hori saldu.
Batzuen ustez, gasa etxe komunitate
batek erosi ondoren, etxeetara
banatzean, komunitateak gasa berriz
saldu egintzen du, hau ezlegala
izanik. Etxeetan propanoa era
honetan kontsumatzen da, baina
propano banatzaileen ustez propa-
noa salbuespena da. Ondorioz, Na-
turgas aukera hau ematen hasi ze-
nean, propanokoek denuntzia jarri
zuten eta erantzuna jaso bitartean,
Naturgas-ek gasa era honetan lortze-

***“Naturgas-ek, Arrasateko zenbait auzotako biztanleei
ez die D3 tarifa aplikatu nahi, legezkoa ez dela
aipatuz, baina baieztapen hau ez du arrazoitzen”***

gehiago kontsumituko dutela pen-
tsatuz, Naturgas enpresari D3 tarifa
aplikatzeko eskatu diote. Baina
Naturgas-ek, denentzat kontadore
bat jartzerik ez dagoela adierazi die,
legeak galerazi egiten duela aipatuz.
Edozein modutan ere, arazoa

ko aukera ez du ematen; dena dela,
azalpen hau ziurtatu gabe dago.

Bestalde, esan beharra dago,
gasaren tarifak etxeetan gasa jaso-
tzeko modua aldatzen duela. D2 edo
D1 tarifaren bidez gasa kontratatuz
gero, etxebizitzetan urarekin egiten

den bezala, kontadore-gela jarri beharra dago, gero etxe bakoitzera-ko gela honetatik tubo edo hodi bana irten beharko delarik. Hodiak etxeen fatxadetatik joan beharko dira. D3 tarifa lortuz gero, kontadore-gela hau ez litzateke egin beharko, etxetako fatxadetan hodi bat baino ez genukeelarik ikusiko, kontadoreak etxeen lehio parean jarriko bait lirateke.

Gasaren kontsumatzaileen elkarte

Duela hilabete bat, Arrasaten gasaren kontsumatzaileen elkarte eratu zen, Uribe auzoa eta Arrasate dorreko biztanleen inizatibaz. Une honetan, elkarteak 2000 bazkide ditu. Bazkideak Deba Garaiko Mankomunitatea osatzen duten herrieta-ko biztanleak ditugu. Guztiak D3 tarifa lortu nahian dabilta. Elkarte-ko partaide den Xabier Pagaldai-k adierazi digunez, familia batek urtean 16.000 pta. inguru aurrez dezake D3 tarifa lortuz gero eta 20 etxebizitza nahiko dira kontsumo horretara heltzeko. Beste leku batzuetan, Madrilen eta Katalunian, hain zuzen ere, horrelako kasurik eman den begiratzen ari dira. Arrasateko Udalari beren alde jar dadin eskatu diote

Beste zenbait arazo

Dena dela, tarifena ez da gasaren inguruan sortu den arazo bakarra. Kontsumatzaileen Informaziorako Udal Bulegoan adierazi digutenez, gasa instalatzeko orduan ere arazoak sortu izan dira. Gasa gure sukalde-

ere ordaintzen da. Arrasateko zenbait familiak bigarren tarifa hau kontratatzean ez zuen berokuntzarik. Baina, kontratua egin eta gasa jarri bitartean etxean berokuntz-kaldera jartzea pentsatu izan du, gerora berokuntza jarri ahal izateko. Edo-



Uribe auzoko biztanleak izan dira D3 tarifa eskatzen lehenak

raino heltzea nahi baldin badugu, bi tarifa ordaindu beharko ditugu. Lehen tarifarekin, gasa leihora arte instalatzea ordaintzen dugu. Norma-

zein modutan ere, gasaren instalatzaileak gasa etxean jartzera joan izan direnean, ez diete kaldera hori gasarekin enpalmatu, legalizatu gabe dagoela esanez. KIUB-OMIC-en lan egiten duen Antton Fernandezek azaldu digunez, kaldera legeztatzeagatik kaldera instalatzaileek 30.000 pezeta inguru kobratzen dute eta arrasatearrek diru kopuru hori ez ordaintzearen, baimenik ez duen norbaiti eskatzen diote kaldera jartzeko. Ondorioz, kaldera legalizatu gabe izaten dute eta gasa ez diete kalderarekin lotzen.

Beraz, KIUB-OMICen azaldu digutenez, horrelako egoeratan auri ez gaitzen norberak legeza dezake kaldera, beti ere kaldera jartzen digunak baimena duen instalatzailea izan behar duela kontutan izanik.

D3 tarifa lortuz gero, familia batek urtean 16.000 pta. inguru aurrez dezake eta nahiko dira 20 etxebizitza 50.000 termiako kontsumora heltzeko

eta Eusko Jaurlaritza edota Estatuko gobernuari honen inguruko definizioa eskatu diote. Elkarteko ordezkariak batek hilabete honen 10ean Naturgas enpresaren gerentearekin bilera burutu zuen, baina jaso zuen eratzunarekin ez dago inola ere ados. Naturgasek D3 tarifa aplikatzea ezinezkoa dela esaten du, legez kanpokoa izatean, baina honen zergatia argitu gabe.

lean zati hau bakarrik ordaintzen dutenei ez zaie oraindik gasa etxe barruan jartzea interesatzen, baina gerora, agian nahiko dutela eta badaezbada lehen instalazio hori egin da uzten dute.

Gasa sukalderaino edota kalderaraino eduki nahi dutenek, bigarren tarifa ordaindu beharko dute. Tarifa hau ordaintzean, etxeko tresnek gasa kontsumitu ahal izateko moldatzea

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



UGARTE

industri hornidurak

Arrasate pasalekua

Tfnoa: 79 73 00-8396

Telefax: 793412


Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNIDURA OSOA - OPARIGAIAK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza, gestio eta salmenta-zerbitzuak eskaintzen dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1



AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana
Frantsesa
Ingelesa

89 - 90 Ikasturtea
Matrikula
epea
zabalik

Bulego

Ordutegia:

4etatik 8etara

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

berango

Arotzeria orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak
(Behea) Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE


PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE

Tfnoa: 761954 BERGARA

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES

IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

Jabi Egidazu: "Ni naiz kapitán piloto..."

Arrasate kostaldetik oso urrun ez badago ere, argi eta garbi esan dezakegu barrukaldeko herria dugula. Bertako biztanleak, garai batean nekazaritzan aritzen baziren ere, gaur egun industrian edota zerbitzuetan lan egiten dute nagusiki. Hala ere, bada Arrasaten itsasoa aukeratu duenik lan egiteko. Horietako bat Jabi Egidazu gaztea da, merkantzia ontzietan aritzen da ofizial bezala lanean eta Arrasaten zegoela jakinik, berarekin egon nahi izan dugu.

— Arrasate Press: Zergatik aukeratu zenuen lanbide hori?

— Jabi: Nire osaba bat barkuko kapitaina da, etxean entzunda nuen haren berri eta nik ere ezagutzen nuen. UBI bukatu nuenean, barkuko kapitain izateko ikasketak egiten hastea erabaki nuen.


— Eskolan urte batzuk egin ondoren gai al dira bertako ikasleak barkuetan aritzeko?

— Ikasketa planak orain aldatuta badaude ere, Portugaleteko eskolan ikasten hasi nintzenez, hiru espezialitate zeuden, makinista, kapitain edo irrati operadore. Eskolan klaseetara joateaz gain praktikak ere egin behar dituzu titulua lortzeko. Nik kapitain aukeratu nuen. Beraz, eskolan bi urte egin ondoren, 400 egun itsasoan igaro behar izan nituen. Itsasoan egun guzti horiek egiten pare bat urte eman nuen eta ondoren berriro eskolara. Eskolan beste urtebete egin ondoren, piloto izateko azterketak gauditu behar izan nituen eta beste urtebete gehiago kapitain izateko. Gaur egun,

prestatuta dago. Lanbide guztiak dute beren alde onak eta txarrak. Itsasoak, etxetik kanpo horrenbeste egunez egon beharra du txarra, itzultzean lekuz kanpo egotea. Lantegi batean 24 orduz egotea da. Normalean lau hilabeteko kanpaina izaten da, ondoren bi hilabeteko oporrak, eta beste lau hilabetez lanera.

— Edozein modutan ere, nazio ugari ezagutzeko aukera izaten duzue, ezta?

— Gu ikasten hasi ginenean, hiri ugari ezagutzeko aukera izango genuela uste genuen. Baina gaur egun, portuetako instalazioak, hirietatik nahiko aparte egoten dira eta portu barruan operazioak oso denbora laburrean egiten dira. Portura heldu eta gehienez bi edo hiru egunez egoteko aukera izaten dugu. Horrez gain, segun eta zein lan izan, portura heldu ondoren, lan egin beharrean aurkituko zara. Beraz, asko jota hiritik ordu batzuetan paseotxo bat emateko aukera izango duzu, ez gehiago. Gasa garraiatzen



Jabi Egidazu

da. Itsasoan ditugunak, edozein lantegitan izan ditzakezun harreman normalak dira. Kapitaina lantegi bateko gerentearekin pareka daiteke, pilotoak erdi mailako mandoekin eta marinelak langile arruntekin.

— Zuk gaur egun UBI ikasten ari diren gazteak zure lanbide bera aukeratzera animatuko zenituzke?

— Ez dakit, nik hau aukeratu nuen eta gustora nabil. Edozein modutan ere, gaur egun gure kolektiboak, %80-85eko langabezia jasan behar du. Nahiko espektatiba larriak daude eta jendea ez da animatzen berau ikastera.

— Zer dela eta dago horren langabezia handia?

— Duela urte batzuk Portugaleteko eskolatik, piloto eta makinista ugari irten zen. Itsasontziak, berriz, gutxitzen joan dira. Konpainia handienak itxi egin dituzte eta itsasontziak beren bandera aldatzean, gero eta eskulan merkeagoa dago. Guk, esaterako kanpoko ontzietara joan behar izan dugu lanera, Liberia edo Panamako ontzietara. Europa eta Ameriketako konpainia handiek bandera aldatzen diete ontziei. Era honetan, beren estatuetan ez dituzte zergak ordaintzen eta edozein estatutako marinelak kontrata ditzakete. Eskulan merkeena kontratatzen dute. Guk piloto eta kapitainok gure lanpostuak mantentzen ari gara, baina marinel eta engrasadoreek oso txarto dute etorkizuna. Ni azken barkuan kolonbiarrekin aritu naiz lanean.

"Konpainia handiek bandera aldatzen diete ontziei, beren estatuetan zergak ez ordaintzeko edota edozein estatutako marinelak kontratu ahal izateko"

bost urteko karrera da, Euskal Herriko Unibertsitate barruan dago eta jasotzen den titulua lizentziatura baten parekoa da.

— Itsasoko bizimodua entzuten den bezain gogorra al da?

— Niretzat gogorrena kanpoan egon beharra da. Ez da bizimodu erraza, baina denetarik dago. Gerrak eta daudenean, arriskutsua dela entzuten da, baina horiek lanbidez kanpoko arriskuak dira. Gaur egun, itsasontziak nahiko ziurrak dira eta bertan aritzen den jendea ondo

duten itsasontziak adibidez, denbora laburra ematen dute portuetan, orduak. Ikus dezakezunez, ez duzu leku ugari ezagutzeko aukerarik.

— Itsasontzietan diziplina gogorra izaten al duzue?

— Nik ez dakit zergatik, beti militarrekin harremanen bat dugula uste izaten da. Jendeak marina merkanteko ofiziala zarela entzuten duenean armadarekin zerikusiren bat duzula uste du. Ofiziala eta horrelako hitzak erabiltzen ditugu, baina hori hitz egiteko era baino ez



Zutirik: Iban Arroiabe, J. Urzelai, Elices, J. Garai, Jon Basurko, Garikoitz, Mondragon, J. M. Balzategi. Makurtuta: L. Errasti, I. Gonzalez, R. Mendizabal, A. Balzategi eta M. Basurko.

Arrasate Saskibaloia datorren urtean 2. dibisioan arituko

Arrasate Saskibaloia datorren denboraldian Bigarren Dibisio nazionalean arituko da. Bigarren dibisioa Estatuko hirugarrena da, Oho-rezkoa eta 1.B-ren atzetik, hain zuzen. Azpeitiko Iraurgi pikuak igotzeari uko egin dionez gero, Arrasateko taldeari dagokio igotzea, denboraldian A-2ko taldean lehena suertatzeagatik.

Era bitxi honetaz Mondragoeko taldea orain dela gutxi pentsaezina zen tokira heldu da.

Honako talde hauen kontra jokatu beharko dute datorren denboraldian Joxemari Balzategiren mutilek: Muebles Martín, Gasteiz (Tagres-en filiala), Juven, Salve, Barañain eta Patronato de Bilbao,

Caja Bilbaoren filiala azken hau.

Nahiz eta igo, taldeak amateurra izaten jarraituko du; hau da, talde barruan inork ez du sosik kobratuko. Plantilari dagokionez, ez da asko aldatuko. Joseba Iriarte baja izango da eta basea eta pivot altua fitxatze-ko asmotan dabilta. Pivotari dagokionez, Gohierriko Iñigo edo Roberto Gonzalez, hauegariko bat, izan daiteke hurrengo denboraldian Arrasate saskibaloiko jokalaria.

Pretenporada Abuztuaren 20an hasiko da Pantikosan.

Baina hau ez dugu nobedade bakarra, ekipoak babestaile berria estreinatuko du datorren denboraldian: Arrasate Kirolak, hain zuzen ere.

Atletismoa: hiru domina

Historikotzat jo daiteke atleta arrasatearren aktuazioa Euskadiko Txapelketan. Hiru domina -bi zilarrezko eta brontzezkoa- lortu ziren Anoetan; taldearen historian orain arte bat bakarrik, Marian Ancinena, lortu delarik.

José Antonio Gayk zilarrezkoa lortu zuen 400 m.koan: 49.27. Tokatutako zortzigarren kaleak kalte egin zion. Jabalina jaurtiketan Inazio Maizbidek brontzezkoa eskuratu zuen, 55-98ko denboraz. Eta pertikan, Bittor Alonsok brontzezkoa ere 4 m.ko jauziaz.

Hauetaz gain, aipatu Jaione Agirreurretaren laugarren postua altuera jauzian; guztira, gure atletek berderatzi probetan hartu zuten parte.

Ziklismoa: Gorka Sudupe, garaile

Gorka Sudupe Leya taldeko lehen urteko kadetea, garaile suertatu zen Zumaian, joan den astebukaeran 39 km.ko proba batean. 132 ziklistek hartu zuten parte lasterketan; eta Gorkak, helmugatik kilometro t'erdira tiroi definitiboa eman zuen.



Gorka Sudupe

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

**ARRASATE
PRESS**

Astero zuekin


podiuma

Inazio Maizbide, jabalina jaurtitzaila, Euskadiko txapelketan bigarren.

Inazio Maizbide jabalina jaurtiketan Gipuzkoako txapelkun eta Euskadiko bigarrena dugu. Euskadiko zilarrezko domina joan den asteburuan lortu zuen Anoetan, 55,98 m.ko marka bateaz, Sanz bizkaitararen atzetik. Jaurtikitzaila honi taldekako Euskadiko Txapelketan irabazi zion.

Inazio nahiko berandu hasi zen atletismoan, 18 urtekin, hain zuzen. "Niri jabalina betidanik gustatu zait, umea nintzelarik harriak botatzeko ohitura nuen. Atletismoan sartu nintzanean altuera-jauzia eta jabalina praktikazten hasi nintzen, azken hau seriotasun gutxirekin. Altueran 1,93an gelditu nintzela ikusita, jabalinarekin hasi nintzen serioago, eta hemendik aurrera honetan bakarrik arituko naiz".

Inaziok duen problemarik handiena entrenatzaile faltarena da. "Bai muskulazioa bai teknika alde-tik, neuk bakarrik prestatu behar dut nere burua. Hiru astean behin Donostiara joaten naiz baina gehiago ezin dut, lanean hiru txandetan bait nabil. Datorren denboraldirako entrenatzailea topatzea espero dut". Baina hemen ez dira bukatzen bere problemak, "dauzkagun jabalinak ere oso txarrak dira, Federaziotik hitza eman didate datorren urtean berria ekarriko didatela. Pista berriak izateko momentua ere heldu



Maizbide, beste domina bat Arrasate Kirolak taldearentzat

zaigula uste dut. Oraindik marka hobeak lortuko genituzkeen". Ez zaie gustatzen martirirena egiten, baina baldintza oso eskasekin egiten dutela lan inork ezin uka.

Baina atletismoak ere noizean behin satisfazioak ematen ditu, eta aurtun ugari lortzen ari dira Arrasateko atletak. Inazio orain dela gutxi Irlandan izan da bost lurralderen arteko txapelketa batean. Bertan bostgarren gelditu zen, bere markarik honena bertan lortuz, 56,94m.koa, hain zuzen. "Izan ere han oso maila ona zegoen. Gales-eko batek jabalina nik baino 20 m. urrutiago bota zuen. Zelako marka!"

Hurrengo astebukaeran Getxon izango den nazioarteko txapelketara joateko esperantza dauka. "Gonbidatu zidaten, eta orain baieztapenaren zain nago. Hilaren azken aztean Alicanteko Federazioen txapelketan egotea ere espero dut".

Futbito txapelketa

Uztailaren 22 eta 23 egunetarako futbito txapelketa antolatu da. Interesatuek izena eman beharko dute Txinato kafetegian hilaren 19a baino lehenago. Izenematearen prezioa, 5.000 pta. taldeko. Ekipoek 5 - 10 jokalarik osatuko dute, eta asko jota, 32 talde onartuko dira. Honako sari hauek banatuko dira: 1.goari, 20.000 pta. eta trofeoa; 2.ari, 15.000 eta trofeoa; 3.ari, 10.000 eta trofeoa eta 4.ari, 5.000 eta trofeoa. Jokalaririk onenarentzat ere, saria izango da. Uztailaren 20an, Musakolako alkatetzan bilera izango da arauak eta lehen eliminatoria finkatzeko.

Altuera operazioa

Arrasate Kirolak, saskibaloitalde berria gazte altuak eskuratzeko operazioa egiten ari da. Lehengo proba igandean izango da, goizeko 10etan Musakola Pabilioan eta, honako altuera hauek eskatzen dira: 1975ean jaiotakoak: 1,80 m.; 1974ean, 1,85; 1973an, 1,90.

Eskalada ikastaroa

Aloña Mendik antolatuta, aste-bukaera honetan Oñatin eskalad-ikastaroa izango da. Larunbatean, 4etan, Zubikoako Kiroldegiko roko-dromoan garatuko da; eta, igandean, goizeko 10etatik aurrera Kordagainen izango da. Bertan eskalada, progresio teknika eta rapelak ikasiko dira. Interesatuek eman izena Aloña Mendi tabernan. Prezio: 300 (400 federatuak ez direnentzat).

Denborapasen soluzioak

Nahaste-Borraste

- 1) Mozkorra
 - 2) Arrauna
 - 3) Euskara
 - 4) Moztu
- MORENO**

“ PAL ”

burdindegia, brikolage eta tresneria
Uribarri etorbidea,3
Tfnoa 79 31 99



**ERAÑA
AHOLKULARITZA**

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea
Tfnoa: 79 83 95 **ARRASATE**

BELUN

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa,z/g Tfnoa:796114

Fusio hotza: Fusio nuklearra errezteko bidea

Fusio nuklearra aurrera eramateko dauden eragozpenak eta Fusio hotzak dakarren iraultza aurreko aletan aipatu genituen. Baina Fusio hotza zertan datza?

Pons eta Fleischmanek, Fusio hotza nola lortu duten ez dute argi azaldu, baina aditzera eman dutenez, hauxe da gutxi gorabehera prozesua: Paladiozko barratxo bat sartu dute ur-gazi-astunez betetako saioidi batean (ur-astuna: Hidrogenoaren ordez Deuterioa duen ura); automobil-bateria batek emaniko korrante elektrikoa pasarazi da saiodian zehar; Deuterioak, Deuterio nukleoak alegia, Paladioan metatu dira; pake-tamendua oso trinkoa izan denez, metalaren sare kristalinoan zehar pasatu dira eta Deuterioaren fusioa gertatu da. Bi zientzilariek esan dutenez, fusioa gertatu ondoren lortu den energia (epeltasuna/27°C), sistemara hasieran sartutako baino lau aldiz handiagoa izan da. Ener-

giaz gain, Tritioa eta neutroiak ere lortu omen dira.

Iragarki honen ondorioz, munduan zehar dauden ehundaka laborategi, prozesu berberarekin Fusio hotza lortzeko lehia baten ari dira. Nahiz eta desadostasun handiak izan, kasu batzuetan emaitza partzialak lortu dituztela zabaldu da. Bestalde, kimikari biek aldarrikatu dutena egia balitz, gauregun ezagutzen dugun Fisikaren arabera, saio horren ondoren kimikari biek hilda egon beharko lukete. Hau da, ohizko Fusioaren ondorioz, beraiek neurtutako energia sortzeko saioiditik irten-go ziratekeen neutroiek, gelan egon zitekeen edozein hilko lukete.

Beraz, nola azal daiteke hau? Zientzilaria batzuen eritziz, energiaren iturria ez da fusio erreakzio baten ondorioa, erreakzio kimiko, baten baizik. Zoriturrez, energia kimikoak ez ditu munduko energiaren beharrak inoiz asetuko,

erreakzio kimikoek ez dutelako denbora luzean irauten, ezta prozesu nuklearrek sortzen dituzten hainbat energia sortzen ere. Beraz, Utha unibertsitateko bikoteak, sortzen den energia erreakzio nuklear ezezagunen ondorioa dela esatea baino ez du.

Horrela lortutako Fusioak bestalde, bere eragozpenak ditu. Paladioa oso garestia eta arraroa dugu, S.E.S.B.ek eta Hego Afrikak bere produkzioa kontrolatzen dutelarik. Bestalde, inork ez daki Fusio hotzak nola ihardungo duen energia multzo handiak lortzeko orduan, ezta erreakzio honek sortzen duen "epeltasuna", (eta ez beroa), gaur egun ditugun turbinekin, nola baliatu ere.

Porrota izanda ere, berri honek munduko zientzilariei ekarriko die-na hauxe da: aurretik ezinezkotzat jotako baldintzetan fusio nuklearra betetzeko saiaketa sakona.

Iñaki Aranburu



IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORIATZA

1989-1990 aurreinskripzio-epela luzatu egiten da uz-tailak 28 arte.

Eskola honek, harrera barruan, **Magisteritza** eta **EGA** tituluez gain, **Kontsumo** eta **Soziolinguistika** arloetan ere diploma berezia lortzeko aukera eskeintzen du.

Informazioa: Irakasle Eskola
Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943-79 04 40



Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik,
astelehenetik ostiralera
Otalora, z/g.
Tfnoa: 79 37 76

Memesa

79 42 22

ARTOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 94 11
Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

Bizikletaren plazerraz eta arriskuaz

Duela urte batzuk bazirudien bizikleta desagertzeaz zegoela, dinoasurioen antzera, autoen eta abiadaren erasoan. Baina azkenaldi honetan antzinako tramankulua suspertu egin da eta gaur egun bizibizirik eta indarrean dirau.

Gure artean bizikleta kirolerako erabiltzen da gehienbat, forma-fisiko hobea lortzeko bide bezala. Zikloturista deitzen bazaie ere, nik uste geure zikloturistengan aisago aurki daitekeela lehiarako grina turismo-rako joera baino. Dena den, bizikletaren kirola ezin uka plazerrerako bide denik, batez ere bira luze eta gogorra egin ondoren.

Bizikletaz egindako turismoa, hau da, marraskiloen antzera behar diren tresnak soinean eramanaz egiten dena, oso gutxi hedatu da gure

artean, oraingoz. Baina probatu duenak badaki zer nolako plazerra sortarazten duen modu honetan bidea egiteak, nolako hurbiltasunez sentitzen diren bizikletaren patxadaz igarotako parajeak.

Baina, plazerraren bilatze horretan, ahaztu egin zaigu bizikleta garraibide bezala sortu zela eta oraindik garraibiderik praktikoa izan daitekeela, zenbait kasutan. Arrasaten dauden distantzia motzekin, adibidez, zergatik ez lanera bizikletaz joan, autoz joateak sortzen dituen gastu eta trabekin? Askoz ere atseginago eta erosoago bilakatuko litzai-guke herria bizikletaren erabilpen-mota hau nagusituko balitz.

Plazerraren eta praktikotasunaren ondoan, ordea, bizikletaz ibiltzeak arriskurik ere badu. Batez ere,

gure errepide gehienak ez direlako gai tokatzen zaien trafiko guztia irensteko, hain dira urriak, estuak, eskasak eta kurbaz beteak. Koko-teraino eginda doan gidariak bizikleta aurkitzean traba bat gehiago besterik ez du ikusten, bozina joka eta bultzaka baztertu daitekeen traba. Alde horretatik, bizikletak errepidean binaka joan daitezten Trafiko Zuzendaritzatik datorren gomendioa ondo dago, eta neurri batean arriskuak murriztuko ditu, baina istiluak areagotu ere bai, ziur.

Bizikletaz ibiltzearen arriskuak behin betiko murriztuko dira errepideak ugaldtu, zabaldu eta hobetzen direnean, traba eta oztoporik gabeko trafiko jariotsua lortzen denean, eta gidariaren jarrera heziketaren bidez aldatzen denean.

Mikel Intxausti

YAMAHA	sonora	PANASONIX	CEC	MUSIMA
KEF	Harman/Kardon	ONKYO	Vegas	
QUAD		CASIO	EGI	
Mission	baile Clener	BASF	NAKAMICHI	
HONNER	Goodmans	Polytone	Televes	Ortela
Zimmerman		Fox	LARK	Rotel
Cyrus	Fujitsu	ERESI	MORESCII	
JAMO	JBL	PIONEER	PHILIPS	
TEAC	TORQUE	Admira	Ortofon	JUGGS
carol		Estrella	KONIKA	UHER
Hantarex	Alpine	SHINTON		
Tensai	MELOS			
Fonestar		Otalora kalea Tfnoa 79 29 09		



**Udaletxean
...Berriz lehenak**

Jakin ezazu hau:

NON: udaletxean
NOIZ: Arratsaldez
2^{1/2}etatik aurrera
NOR:



Vicente Ign. Echeverria

Eako zinegotzia
ZERTARAKO: Zuen zerbitzura egoteko
GORA ARRASATE

**TXOKO
TABERNA**

Gure berezitasunak
pintxo eta mokau
gozoak

**MONTE
TABERNA**

Maalako Errebala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Oporrak, irakurtzeko gogoia bultzatzeko une aproposa

Irakurtzeko gogoia bultzatu nahi badugu, irakurketa ekintza atsegina izatea lortu behar dugu. Haurrentzat irakurketa atsegina izatea lortuz gero, bere barruko beharrian bihurtuko da. Ez oster, guk helduok, kanpotik betebeharrak huts bezala inposatzen badiogu.

Hona hemen hori lortzeko balio garri izango zaizkizuen zenbait ohar:

EZ behartu irakurtzen.

Irakurketa ekintza atsegina izateko bideak zabaldu haurrari:

•Liburua beretzat egokia dela ziurtatu

•Ahal baduzu alde aurretik irakurri, eta galderen bidez lliburuaren ulermena sakontzen lagundu (adibidez: "Liburu honetan zerbaitek barregarria gertatzen da, esango didazu



zer den? "Zer iruditzen zaizu pertsonaiaren jarrera")

EZ fujatu bakarrik ahoskatzerakoan egiten dituen hutsunetan.

BAI irakurri duena ondo ulertu duen ala ez.

Hauerraren irudimena estimulatu ("Kontatu ipuin hau "otsoa" ezagutzen ez duen zure adineko haur bati, amari"...) EZ jarri haurra bere neurrikoa ez den liburuen aurrean.

EZ jarri haurra ulertuko ez duen (porrotera bultzatuko duen) zerbaite irakurtzen. Porrotak porrota bultzatzen du.

Inongo laguntzarik gabe irakurtzeko gai izango den liburu luzaiozu.

Zoriondu ongi egiten duena.

Haurrari IRAKURRI! esatea ez dela nahikoa gogoratu. Zure haurrak irakurketarako gogoia bultzatuko duen zure laguntza behar du.

Klarion taldea



omu mosaikoak

Zeramika-Erakusketa: Otalora Ilean

Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak

Azaleko alergia

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan

neurri guztietako

altzariak

Araba Etorbidea, 13

Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

ANDERE

*Bainu eta
sukaldeko*

ALTZARIAK

*Sukaldeko altzariak neurri egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektratesnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurri ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

*Diseinu altzarrietan trebatuak gara.

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

Maiatz

ILEAPAINDEGIA
mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)

Tfnoa: 79 58 78

ARRASATE

Kolesterola

Munduan zehar hainbat lekutan 1950. urtetik hona egindako ikerketek eskertzen dugu arteriosklerosia gaitzaren aurrerabidean kolesterolak duen eragina garrantzi handikoa dela.

Gaur egun, denek aho batez kolesterola, LDL-kolesterola batez ere, gaitz koronarioen arrisku-faktore nabarmena dela eta zuzendu beharra dagoela diote.

Normaltasunaren muga 250 mgr/dl-tan jartzen dugu; baina gaur egun Arteriosklerosiaren Erakunde Europarrak emandako aholkuetan 200-220 mgr/dl-tik gora ez pasatzea gomoendatzen dute.

Arrasaten 1975. urtetik hona egindako ikerketetan agertzen denez %17,7 gizonezkoen artean eta %11,3 emakumeen artean kolesterola, 250mgr-tik gora dutenak dira.

Normaltasunaren muga 220 mgr-tan jarriko balitz populazioaren %50-ak maila altuak izango lituzke.

Kolesterola eta Miokardio-infar-

tuaren intzidentzia erlazionaturik dago grafikoa ikus dezakeguz. Kolesterol gehiago duenak infartua izateko probabilitate handiagoa du. Horregatik kolesterolaren neurria 250etik gora izanez gero, jaistea derrigorrezkoa da.

Neurri hauen helburua kolesterol totalari dagokio, batez ere LDL-kolesterolari (hau bait da txarra), eta HDL-kolesterola (ona dugu hau) neurri egokian mantentzea.


Gaur egun, odolaren analisia egitea goazenean eta kolesterola aztertzerakoan bere frakzioen (HDL eta LDL) determinazioa egitea komenigarria da.

Triglizeridoek ez zaie horrelako garrantzirik ematen, baina hauek ere kontutan izatekoak dira, batez ere berauen baloreak behin eta berriro goian mantentzen badira faktore jenetiko baten ondorio direlako.

Hipertriglizeridemia iragankorrrak, pisu gehiegiaren ondorio direlako, alkohola hartzeagatik edo jana-

riekin koipe gehiegi jan delako... ez dira hain kontutan hartzeakoak, erraz ekarri bait daitezke neurri egokira.

Odol-ikerketan 12-15 ordu baraurik egin ondoren egon behar da eta dislipemiaren diagnostikoa egiteko determinazio bat ez da nahikoa. Bi edo hiru asteren tartearekin analisia errepikatu egin behar da; orduan, balore horiek goian jarraitzen badute, tratamendua hastea komeni



◀160-180-200-220-240-260-280-300-300
Kolesterola mgr/dl. *Eukeni eta Arantxa*

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



OPTIKA - OFTALMIKA

- gogorrak
- porodunak
- bigunak
- kosmetikoak
- erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa !

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea, 6
Tfnoa: 79 25 98

ARRASATE

Mendiko bizikletaren "hariak" (II)

Aurreko astean esandakoari jarraituz, oringoan ekipo pertsonala eta bestelakoak aztertuko ditugu.

Jantziak: esan daiteke ziklismo eta mendi jantzien arteko zerbait eroan daitekeela. Dena den, gaur egunean modan dauden zenbait kulote, fraka etabar ere hor ditugu aukeran. Oinarritzotzat kulotea jo daiteke. Bestalde, geure gorputza babesteko, kaskoa(burukoa), eskularruak eta, gura izanez gero, betaurrekoak.

Bestelako akzesorioak: aurreko astean aipatu ez bagenituen ere, esan motxila eroatea garrantzitsua dela, barruan gurpilari dagokion kamara, etabar eroateko. Zulatuak konpontzeko partxeak ere eraman. Aholku bat ematekotan, botikin txiki bat, iparrratza, linterna, eramatea. Honi dagokionean ohar txiki bat: guzti honek ibilaldi luzeak eta oporretan joateko



balio du. Hemen inguruan ibiltzeko gauza batzuk bakarrik erabili.

Gurpilak: trebetasuna lantzeko (trial-ean legez) gutxi puztu. Bideetan ibiltzeko ondo puztuta eroman. (Zulaturik jasan gura ez baduzu). Eta tokiaren arabera dibujatuak: hobeto edo gutxi ebaketako. Honen arabera lortuko duzu abiadura.

Botak: edozein oinetako ona da,

baina egiten dugunaren arabera erabakiko dugu zapatila edo botak hartzea. Dagoeneko, mendiko bizikletan ibiltzeko oinetako bereziak daude.

Ikus dezakezuenetz, arropa gutxi eta sinplearekin ere ibil daiteke. Beraz, gorputzari zer eskatu huraxe egingo duzu, bestelako eskari berezirik egin gabe. Orain animatzea baino ez zaizu geratzen.

K. U.

Gorka

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Bainetxe kalea, 10-behea. Tfnoak: 799680 eta 796327
ARETXABALETA



PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

AUTO-ALDAGAILUAK ARRASATE

kotxerako aldagailu eta akzesorioak

Tfnoa: 79 61 11 Udala Enparantza (Izarra dorrea)

Trapo's

BOUTIQUE

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38
ARRASATE

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESS

astero zuekin

TECNO^{PRO}

puntako marka



zure aukerarik onena

- * **TECNO^{PRO} HURRICANE RAKETA**, aluminiozkoa, mid azaleraz eta oso arina.
- * **ROMBO MARBELLA POLTSA**.
- * **TECNO^{PRO} PILOTA-POTEA**, 3 unitate

~~5.485~~
3.500! =
arrasate

LORAMENDI



— KIROLAK —

Errebuella, 2
Tfnoa: 79 97 24
ARRASATE

**APROBETXA ZAITEZ UDAKO ESKAINTZAZ
CAMPING-A, TENISA
KIROL OINETAKOAK**

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN

SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



GIPUZKOA

HERRI Irratia

ETXEBIZITZAK

- Pisua errentan hartu nahi dut edo bestela erosi. Tfnoa: 79 91 51. Nati.
- Bergaran, erdigunetik gertu, etxebizitza salgai. Harremanetarako dei 76 38 55 (Jatorduetan) edo 76 44 53 (Goizez)Tfnora.
- Zigarrolan etxebizitza amueblatua salgai. Tfnoa: 79 08 69
- Arrasaten etxebizitza salgai. 3 gela, hall-a, sukaldea, bainugela: 70m². Trastelkua: 15m². Interesatuak dei 79 85 39 telefonora.
- Alokatzeko pisu bila. Tfnoa: 55 33 20 (Antonio)
- Ikasleak pisu bila. Interesatuak dei 55 14 43 telefonora
- Donostian, Antigu inguruan, pisua alokairuan Uztail, Abuztu eta Irailean. Saloia, bainugela eta telefonoa. Eguzki begira, dena kanpokaldera. Interesatuak dei 79 14 69 telefonora
- Pisua salgai. Telefonoak: 79 81 23 eta 79 63 84 Aretxabaleta (Puerta Sol)
- Altamiran garaje-plaza salgai. Tfnoa: 79 38 20
- Pisua alokairuan behar dugu Irailetik aurrera. Interesatuak deitu 76 30 01 eta 79 90 36 telefonoetara.
- Uribe Auzoan pisua salgai. Ganbara eta garajearekin. Deitu 6etatik aurrera 79 49 66 telefonora.
- Donostian pisua alokatzen da uztaila eta abuztuan. Prezio interesgarria. Tfnoa: 64 33 39
- Pisua edo logela etxe konpartituan hartu nahi da errentan. Tfnoa: 79 91 50. Jon.
- Baserria erosiko genuke Arrasaten edo inguruetan. Tfnoa: 79 69 66.
- Uztail eta Abuzturako lana egiteko neska behar baduzu, dei nazazu 79 28 81 telefonora. Edurne.

LANA

- Neska gazteak etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke udan. Interesatuak deitu 79 88 73 Tfnoara. (Arratsaldez)
- Bi neska Abuztuan lan egiteko prest. Interesatuak deitu 79 49 63
- Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko neska behar dugu Gasteizen (ahal dela Euskalduna). Orduetgia: goizeko 8etatik arratsaldeko 6etara. Tfnoa: 945/23 03 30.
- Etxeko lanak egiteko edo eskailerak garbitzeko neska heldua prest. Egunero lana egiteko, arratsaldeko 4etatik aurrera. Tfnoa: 79 80 92.
- Bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska behar dugu. Tfnoa: 79 62 82. Arratsaldeko 7,30etatik aurrera.
- Pertsona bat behar da abuztuan latinezko klaseak emateko. (Unibertsitateko lehenengo maila). Interesatuak dei 945- 44 50 24 Tfnoara.
- Uztail eta Abuzturako lana egiteko neska behar baduzu, dei nazazu 79 28 81 telefonora. Edurne.
- Emakume batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 51 01

DENETARIK

- VIII. Toki ageriko Pintura-lehiaketan parte hartu zutenek Monterronetik pasatu beharko dute egindako lanak jasotzera, 15 eguneko epearen barruan
- Bi gaztek beste bi edo hiru behar dituzte datorren ikasturtean Donostian pisua konpartitzeko. 79 51 95 eta 79 47 35 Tfnoak.

SALEROSKETAK

- Motorra, haundixe, zaharra bada bez ez dutzo importa. Merke badauketuz erosiko neuke. Tfnoa: 79 88 23.
- Citoen GS SS-M salgai. Interesatuak deitu 79 38 58 tfnora. Gaueko 8,30etatik 10,30etara.
- Mexikoko hamakak, Indiako zeta eta zilarrezko bitxiak (tobillerak, koilarrak...) saltzen ditut. Interesatuak dei 79 15 54 telefonora. Aintzane.
- Paseozko bizikleta saltzen dut, 5 pinoi, 2 plater eta argifokua. 20.000 pta. Interesatuak dei 79 71 64 telefonora. Juanlu. (lanorduetan)
- 2 hilabeteko bi txakurkume eme erregalazten ditut. Aita Ardi-txakur euskalduna, eta ama Coolie. Oso politak. Tfnoa: 55 78 00. Joxe Javier. (9etatik 3retara)
- Micro Genie V-60 organo elektronikoa . 49 notako teklatura- 8 abots polifoniko -erritmo kontrola - efektuak- nota melodikoak eta musika laguntza, etbar... Saldu nahi nuke. Interesatuak dei 79 33 35 telefonora 8etatik aurrera.
- Saskibaloirako baloia salgai Tfnoak: 79 15 96.
- Egongela salgai. Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 58 02 telefonora.
- Puch Condor III motorra salgai. Tfnoa: 79 87 72 (arratsaldeko 7etatik 9etara)
- Opel Corsa salgai, 12.000 kilometroekin, ia berri-berria. Interesatuak dei 76 46 48 telefonora.
- 3 txakur doberman salgai daude. Ama oso ona daukate eta aita berriz ez zen txarra izango. Bedoña auzoa. Tfnoa: 79 92 81.

ARRASATEN HILDAKOAK

†
Anselma Amiano Zarraoa,
85 urte. Uztailaren 6an.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zeharkale estalla 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



...Baserriko eramintak zorroztu, igeteixek ein, ganauek perrau...

Gerra ostien bai fabrikari eta bai errementari

Bixente: Ofizue ikesteko urten nauenien "Juanito Bedoña" jauan kontramaixu eta harek:

"Ofisue ikesten duanien etorri hona, hemen falta eingok eta". Hala gerra ostien barriro sartu nitzuan Ugartenien lanien. Hala be, ez naukan errementari ofiziuorri jareitako asmoik eta 46xen, suteixe eta motor-txo bat bentiladoriekin ipini naixuan. Gero 54en 15.000 ptako obrie ein eta tallertxue montau eta harrazkero bertan. Jubilau arte fabrikako orduetatik aparte eitten naixuan errementari.

Errementaixen denpora bateko lanak

Bixente: Baserriko lanak eitten zittuan asko; artarie, burdiferie, goldie... dana arreglau eta zorroztu bierra egoten zuan.

Orduen denporan, manduek, astuek, zaldixek, behixek eta irixek lanien ebalten zittuan asko eta perretan be lan haundixe izeten zuan.

Iosu: Karreteruen Irixek zittuan perretako txarrenak. Juen-etorri asko eitten juen eta 15ien behin perrau ein bier, bañe kaskue janda eta ezin perraik josi, a ze komerixak!

BIXENTE BARANDIARAN

"Mentu"
eta IOSU OTADUI
"J. Herrero" (II)

"Karreteruen irixek zittuan perretako txarrenak, kaskue janda eta ezin perraik josi"

Ganauendako eta zaldixendako perrak

Bixente: Ganauendako perrak normalien Mutrikotik ekarten gittuan. Txapie zuri-zurixe etra bigunbigune, di-da segiruen moldetan zittuan.

Zaldixenak eta geuk eitten gittuan, kasku dana tapetan auienak. Harrixetan eta labandu eitten ziela eta gomazko plantxa bat jartie izen zuan hurrengo lana.

Baña gomiorrek kaskue berotu eitten jutzien eta erdixen triangulu moruko bat eittie asmau gaixuan haixie hartu zeixen.

Iosu: Gero Plaentziko Txurrukak "U" formako perrie atara juan eta han akabau zittuan betiko problemok.

Inbentu edarra izen zuan ha!

77 urteaz be lanien

Bixente: Bai, bañe eitten doten lana denporie pasauaz eitten juat. Aizkorak eta atxurrek zorroztu, igeteixek ein, ganau banakak perrau...

Bost bat ordu eitten jittuat epunien, goixien 10etan hasi, zurixe erateko ordue zaindu etra 12etarako itxi, eta atsaldien 6ek inguru arte, segun ze gogo dauen.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Buztingorri erdi tontua aspaldiko partez agertu zan konfesatzera eta abadiak ikusi orduko sekulako saldua egin zotsan. "Erdi tontuak peizaten jittuek inoiz animako kezak" ziñuan bere artian.

— Ze doñok pa, Buztingorri?

— Badakizu ba, erdi tontua be banaiz eta inoiz okerreko bidiak ekartzen nau.

— Zela? Okerreko bidia dok hau, ala?

— Hau ez, ni hona ekartzen nabena, pekatua. Erdi tontua be banaiz eta.

— Bai, bai, eta zer?

— Lantzian behin gau illuna be izaten da eta... badakizu ba, erdi tontua be banaiz eta...

— Bueno, bueno, eta zer?

— Bueno inoiz, gau illuna darian, auzoko eskortatik etxekora ardiren bat ero beste pasau izan dot erdi konturatzeko. Badakizu ba, erdi tontua be banaiz eta...

— Eta erdi tontua izanik, niozian behin etxak bururaten zeuen esparrutik auzokora ardiren bat pasatzia?

— Ez jauna ez, holakoik ez Jan-goikuan izenian. Hori ingo baneu akabo ba, orduan tonto osua izango nintzake.

.....

— Tabakua da hondamendixa. Erreko ezpaziñu honezkero palazio bat erosi zeinkien diru horrekin.

— Zuk eztozu erretzen?

— Ezta bape.

— Goazen orduan zure palaziaua ikustera.


Juan Martin Elexpuru



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE



Uribarriko eliza

Urrutitik ikusten zen oraintsura arte, Mondragoetik Aramaixorako kaminoaren gaintxoan, Uribarri auzoko elizaren kanpandorre zorrotza. Kaletik nahiko hurrean aurkitzen zen auzo honek baserri mordoska zuen Ugaran bailararen behekaldean sakabanaturik. Erreka ondoko lur gizen eta lau samarrak aproposak ziren nekezaritzarako; eta izan ere, famatuak genituen Uribarri aldeko

baserrietako ortu-emaitzak. Baina hirigunetik hurbil samar egoteak eta eraikuntzarako ere lur egokiak edukitzeak izugarritzko itxuraldake-ta erakarri diote auzoari azken 30 urteetan. Beheko ibarrean nahiz alde bietako maldetan hamaika lantegi, eskola, jolasleku, etxebizitza, bulego eta bestelako eraikuntza jaso da 1960tik gaur arte. Argazki honetan agertzen den baino itoago eta inguratuago baldin bada ere, oraindik tente dirau Uribarriko parrokiatxo politak.

Jerardo Elortza

—Joan den asteko irabazlea—
Maite Gallastegi, arrasatearra.
("Biteri aparkalekuan izango dira dantzaldiak")

Egundoko Walk-mana
-VIGURI Bideo Klubak emana-
eskuratu nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:
Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



...eta gainera

VIGURIk

hilaren bukaeran
14'ko koloretako

ITT NOKIA markako TELEBISTA BAT

zozkatuko du hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate




HIRU S.A MEKANIZAZIOAK

- * Doitasunezko mekanizazioa plano eta langilen arabera
 - * Fresatzeko makinak
 - * Zenbakizko kontrola
 - * Mekanizazio - zentruak
 - * Tornuak
- * Artezteko makinak, etab.

Zaldispe kalea, 10 ARRASATE Tfnoak: 79 67 80 79 05 61

Posta kutxa 95 .Telefax: 79 80 97



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

OSORIK

pub

Ignazio Zuloaga

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE

J. L. GIRALDO


Laster kontsulta irekiko duela iragartzen du

DIGESTIO-APARATUA

Eguzki Dorrea 2. B

Loramendi 6, 2. B

Argibide gehiago jasoteko (Deitu 79 04 14 Tfnoa.)



JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE

Lubildaren bila

Ez duzu zuk ziuraski Lodron konterriko Lakda hiria ezagutzen, ezta ere, bertako erregina den Lubilda gaztea. Nik bart arratsaldean asmatutakoak dira eta.

Lakda-ko gazteluan eraikia dagoen kupula imaginarioaren erdian bizi da Lubilde, eta ederra da oso; ez da beste inon horrelako edertasuna duen emakumerik. Bere bi begi lausotuek ekialdera begiratzen dute beti, isilean; eta gauean, ilunak kale hutsetako maitale furtibo apurak ezkututzen dituenean, aspaldiko kobla erromantikoak abesten ditu Lubildak, Lodrongo ortzia argitzen duten izar urrien estalpean.

Asko izan dira, Lodrongo historia laburrean, Lubildaren bila abiatu diren zaldun mitozaleak, eta bestelako ipuinetako pertsonaia xebreak. Nik hiru ezagutu nituen; Gilmor, mendebaldeko lurretatik etorria, poeta eta erromantikoa, ameslari sutsua, nere irudimenaren eremuetan galdu zen, eta hor nonbait dabil, ezagutzen ez duen errealitatean murgildua.

Tulger, Gorr handiaren odol berekoa. Lodron-en inoiz ezagutu den zaldunik ausart eta trebeenetarikoa, ametsean erori omen zen, eta inork kantatzen ez dituen kanta zaharrek diotenez, hegoaldeko Xolong-go gaztelu beltzean eman zituen bere azken egunak, Xhanet atzerriratutako printzesa maltzuraren eskutan. Eta Galak ere ezagutu nuen, ekialdeko bideko Likitx ostatuan, baina ahanzturaren mandu ahantzira erbesteratu nuen berehala. Horregaitik begiratzen du Lubilda erreginak ekialderantz, esperoan isuritako azken malkoaren urratsa, bere masaila borobilean desagertzen den bitartean.

Ez duzu dena dela, zuk Lubilda gaztea inoiz ezagutuko, nigan bakarrik esititzen da eta.

Yull Trull

J. Larrañaga

OPTIKA

*Betzuringorako lentilak / Gortasunerako aparailuak
Industriarako babes-betaurrekoak / Audiometriak
Begi-errehabilitazioa*

Juan Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 29 95 ARRASATE

apainketak

Zubizarreta
GALERIA 44

erakusketak

o
p
a
r
i
a

■ **Hitz bitan:** Izar berria jaio da euskal irratigintzaren zerusabaian eta nik, astronomo kaskarra izaki, bederatzi hilabete behar izan ditut neure irratiparailuaren dialean topatzeko.

Ahots gaztea du, beroa, esateko modu sujerikorra, naturaltasunaren eremuetan isurtzen duen barre alaiaren jabea. Nekane. Euskadi Irratiak arratsalde partean duen esataririk atseginenetakoa. Peñagarikano. Eguneroko gauzak nortasunez esaten dakien aurkezle sinpatikoa. Arratsaldeko zazpietan egunero, eguneko ekitaldiak, kultur albisteak, kantak, lehiaketak, prentsaurrekoen berriak, elkarrizketak, hau da, beste emankizun askotako osagai berdintsuak, baina era berezian egosiak eta aurkeztuak. Ondorioz, programak dirauen ordubete eskasa motz egiten da, are motzagoa Uztail honen amaieran bukatuko dela jakinda. Hitz bitan: Nekane Peñagarikano. Euskadi Irratiko izar iheskorra.

■ **Wimbledon:** Mundu osoan zehar ikusle gozagarriak biltzen duen tenis txapelketa. Euskal Herrian ere, zer esanik ez. Transmisio-eskubideak hain dira garesti, ze telebista-kate txikiak nekez lehia daitezke handien kontra. Aurten, berriz, sorpresa. Estatu espainoleko TB kate autonomikoak bat eginda joan dira Estatu osorako transmisio-eskubideak erostera eta TVE ahalguztidunari irabazi. Harrapazak hori Torrespaña!

Ez da askotan gertatuko, baina aurtengoa gutxienez euskaraz ikusteko parada izan dugu, modu txukunean gainera. Zorionak Ihorretakoiei!

■ **Loiolako Herri Irratia herriz-herrri jaietan:** Ahalegin berezia egiten ari dira Loiolakoak beren entzulegoa zabaltzen den herrietako jaiak direla eta. Honez gero Mondragoen, Eskoriatzan eta Elgetan izan dira, azken honetan Feria Nagusikoetan. Zenbait kasutan bi unitate ibilkor bidali dituzte beste hainbat herritara, emankizunak batera eman ahal izateko. Unitate horien buru Alberto Gorritiberea eta Laxaro Azkune. Hainbat kasutan topikoetan jaustea bazter ezina dirudien arren, lan eskerga egin dute, beti ere irratia hobekien egiten duena eskainiz: bizitasuna.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Frantziako Iraultzaren II. mendeurrenaren ospakizuna,** ostiralean, 22,00etan. Jai honetan 10.000 artistek, eta 3.000 teknikaririk gora hartuko dute parte. Ekintza honen berri emateko Parisera 5.000ren bat kazetari hurbildu da. Besteak beste, James Brown, Tom Jones, David Byrne eta Boy George abeslariak, eta Bush eta Thatcher politikariak izango dira bertan.

■ **Delvecchio,** igandean 14,45etan, Serie berria. Delvecchio detektibeak dugu, zuzenbide ikasketak egin, eta galdutzat ematen diren kasuak deskorapilatzen ariko dena. Filmean, inork baino hobeto ezagutzen ditu hiri handiko kaleak eta bere lanbideak guztiz harrapatuta dauka. Aita, bizargin erdi-erretiratua, du kanpoarrikiko lotura bakarra.

■ **Bandera beltza** (1986), larunbatean, 22,10etan. Zuzendaria: Pedro Olea. Antzezleak: Alfredo Landa, Imanol Arias, Virginia Mataix. Urki itsasontzia Afrikarantz abiatzen da destinu ezezagunerako kargamendua eramanez. Bertara heltzean tripulazioa atxilotzen dute armen salmenten salaketan.

bideoak



Polizi Akademia Eroa: Iparramerikar hiri bateko alka-tesak Polizi Akademiako atekabaldunak dizkio rekluta. belau-naldi berri bati; sartu nahi duten guztiak onartzen dira, ezin berezkeriarik kontutan hartu barik, Honela "D eskadroia" osatzen da, pertsonaiarik bitxienekin.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-koa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Nahaste-borraste

Lehenik, badakizu, definizioei dagozkien hitzak asmatu eta idatzi, eta ondoren, berau nere orrialde honetan agertzea nahiko lotsagarria bada ere, laukietan geratuko zaizkizun hizkiekin saia zaitez ETB-k gaur egun duen aurkezlerik nardagarrienaren deitura eratzten.

- 1) _ _ _ _ _ _ _ _
- 2) _ _ _ _ _ _ _ _
- 3) _ _ _ _ _ _ _ _
- 4) _ _ _ _ _

- 1) Gehiegi edanez gero harrapa daitekeena.
- 2) Txalupetan ohizkoa da esku-“Motor” hau, gasolinazkoaren alternatiba deportibo-ekologikoa.
- 3) Munduko hizkuntzarik politena.
- 4) Ebaki

(Soluzioak 19. orrialdean)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Aspaldi honetan besteek pentsatzen dutenak gehiegi kezkatzen zaitu. Itxurak gordetzea komeni bazaizu ere, ez da hainbestekoa.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Zuk ezin baduzu egin, ez pentsa besteak egoera berdinean daudela, inor ez da ezinbestekoa. Lasai egon zaitezke, zu gabe moldatuko dira.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Aquarius batekin hitzegitea oso ondo letorkizu, zure ideiak ordenean jartzen lagunduko lizuke eta. Kanpotik berri onak izango dituzu.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Konpromezu asko edukiko duzu datorren astean, baiarrakasta handia ere. Aukera ezin hobea bilatzen ari zaren ospea lortzeko.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Zure buruari proposatutako aldaketa hori oso osasungarria gertatzen ari zaitu. Bestalde, lagunen berotasunak indarrez beteko zaitu. Pozik egon zaitezke.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Laneko asuntuak eta dirua oso lotuta ikusiko duzu datorren astean, emaitza onak lortzen ondo antolatzerakoan. Ongi pentsatu, ez da txantxetako gauza eta.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Aukeraketa bat egin behar duzu baina ez duzu batere ongi ikusten. Nahiz eta aholku guztiak entzuteko prest egon, erabakitzea zeuri bakarrik dagokizu. Zorte on!



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Ekaitza ondoren lasaitasuna dator, joan den asteo arazo guztiak desagertzea doaz. Galdu duzuna ez zen altxor bat, beraz ez negar egin horregatik.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Oporrak baino lehen atzedenditxo bat hartzen ez baduzu oso gaizki bukatuko duzu. Lan gehiegi egiten ari zara eta horrek nekea besterik ez dizu ekarriko.



CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Orain arte jarraituz gero, emaitzak ezin hobekak izango dira. Frogatu egin duzunez, zerbait zure buruari proposatzen badiozu, lortzeko gai zara.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Lortzen ari zarena garrantzi handikoa gertatuko zaizu aurrerantzean. Egun hauetako lanak zure buruarengan zenuen konfidantza gehituko du.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Prestatu zenuen plana atera ez bazen, ez haserretu ez da inoren errua. Beste alde batetik ikusi behar dituzu gauzak, askoz hobeto pasatuko duzu.



a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489

barrukaldeko arkitektura
etxeke ekipamendu osoa
merkatal lokalen instalazioa

ARKITEKTO TEKNIKOA ETA APAINZAILA TITULATUAK DAUZKAGU